




Hiru hamarkada igaro dira Lemoizko zentrala itxi zenetik, eta oraindino ere badu zer esaterik ▶22

Kontzertu bira abiatu du Getxon Mikel Urdangarinek, inoiz baino biluziago. Kankak sortu ahala, Sopelara hurbilduko da. ▶16



hiruka

Uribe Kostako astekaria



4. zenbakia

2015eko
otsailaren 12tik
otsailaren 18ra arte

Buru-belarri sartuta!

Negu akabuko mozerro-dantzan barneratuko dira Aratusteen doinura asteburuan eskualdeko herri ia denak.

Erandiotik Lemoizera desfileak, lehiaketak eta dantzaldiak egongo dira txiki eta handien gozamenerako.

Algorta, Astrabudua eta Berangon jarraituko dute ospakizunek otsailaren 19tik 21era arteko asteburuan.



© PATXI LOPEZ

Pablo Astrain artistak horma-irudia pintatuko du Leioako Mendibile jauregian, txakolinaren “aztarna” erakutsiz. ▶4

“Gaztelonjak” programa jarri du martxan Getxoko Udalak, txakoen eta auzokideen arteko bitartekaritzarako. ▶9

Kurtzio Kultur Etxeak denboraldiko egitaraua aurkeztu berri du. Bost urte bete ditu Sopelako kultur-zentroak. ▶11

Bizkaiko txapelak irabazita ere Uribe Kostako trinketlariek ezin dute eskualdean entrenatu. ▶20



Pentsalekutik

MAITANE NEREKAN UMARAN
Ezertan aditua, askotan aritua

Pozten naiz zuek ezagutzeaz

Nire ahizpetako batek hala zigortu ohi ditu bere semeak jarrera desegokiak identifikatzen dizkienean: “Joan zaitez pentsalekura”. Hori entzunda, nire iloba maiteak gelako txoko bazterrean eseri ohi dira, eta, bertan nahikoa deritzoten denbora eman ostean, amarengana bueltatzen dira egindakoaz hausnartu dutela eta lasaitu direla adierazteko. Nik ere pentsalekutik idatziko dizuet zutabetxo hau. Kapitalismoak inposatzen digun bizitzarritmo zoroan, faltan baititut barne-hausnarketarako uneak, txokoak. Nire iloben kasuan ez bezala, HIRUKAk eskaini didan aukera ez da inondik ere zigorra, opari ederra baino. Jaioberri den komunikazio-proiektu euskaldun honetan parte hartzea opari eta ohore ederra baita Algortan, Uribe Kosta osoan, Euskal Herrian eta euskaraz bizitzea amesten duen honentzat. Egongo da nire hausnarketetan batere interesik ez duenik; horiei guztiei ondoko artikulura salto egitea gomen datzen dizuet. Ez dut ezeren eta inoren izenean idazteko asmorik; horrek ez du esan nahi beharrezkoa dudanean egingo ez dudunik. Txoko hau probokaziorako erabili nahiko nuke, aldarrikapenerako, “piropoak botatzeko”, borrokarako, espainiar eta frantziar faxisten gatibu zaudetenak agurtzeko, kritika erakitzailerik zein suntsitzailerik... Halere, kontziente naiz, nahi baino, ahal dudana egingo dudala; Sarrionaindia edo Bordaren gaitasunak urrunak baitzaizkit niri. Espero dudana bakar-ra da urteetan idatzi ahal izatea, edo urteetan kexatu ahal izatea idazteko aukerarik eman ez didatelako. Horrek esan nahi izango baitu HIRUKAk eta nik neuk bizi-rik jarraitzen dugula. Bide batez, goraintziak zuzentzaileari! Hurrengora arte, zaindu!

Abian da gazte-lonjen bitartekaritza zerbitzua

Programaren helburua lokal horiek gutxieneko baldintzak betetzea da, alokagarriak izan ahal izateko eta arriskutsuak izan ez daitezen.

Abian da “Gaztelonjak” programa berria. Horren bitartez, Getxoko Udalak, Gazteria Zerbitzuagaz elkarlanean, udalerrian dagoen “gazte-lonjen fenomenoari” erantzuna eman nahi dio. Horretarako, prestakuntza kualifikatua duten profesionalak herritarrei orientazioa, aholkularitza, eta, beharrezkoa izatekotan, bitartekaritza zerbitzuak eskainiko dizkiete.

Imanol Landa alkateak aipatu duenez, “programaren helburu nagusia gazte-lonjen inguruan nola edo hala inplikaturik dauden alde guztien artean oreka lortzea da”. Izan ere, azaldu duenez, azkenaldian fenomeno hori ez dago libre “gatazketatik, arazoetatik edo zailtasunetatik”; hori dela eta, uste du heziketa-esparruan lan egiteko “aukera paregabea” dutela, “gazteek gune horiek ahal duten beste erabili eta goza ditzaten laguntzeko, emantzipaziorako esperientzia txikiak praktikara eramateko gune aproposak baitira”.

Getxoko lonjen egoerari buruzko diagnostikotik ateratako ondorio nagusietan oinarritu dira programa hori martxan jartzeko. Hala, kudeatzailerik lau lan-esparru handitan jardungo dute: guraso, gazte, lonjak alokatu nahi dituzten jabe eta auzokideen galdera eta kezkei arreta eskaintzea; gatazkaren bat sortzekotan, bitartekaritza eskaintzea bizikidetzara hobe lortu ahal izateko; balizko arrisku egoerak aurreikusi eta jakitun egin lonjen erabiltzaileei; eta lonjak erabiltzeko gomendioen inguruan gazte erabiltzaileak hainbat gai lantzea, hala nola, zarataren kontrola, higiena, alokatzeko kontratuak eta instalazio elektrikoak.

“Gaztelonjak” programaren helburua lokal horiek gutxieneko baldintzak betetzea da, alokagarriak izan ahal izateko eta auzokideentzat zein lonjen erabiltzaile gazteentzat arriskutsuak izan ez daitezen.

Udalak jakinarazi duenez, hasiera batean, Gizarte Zerbitzuetan gazteen



Getxoko 1.600 gazte inguruk erabiltzen dituzte lonjak udalerrian.

Iritziak



JON MIKEL LUJA
Tabernaria

Ezarri ditzaketen ezaugarriakaz, lonjak izateko baldintzak zorrotzagoak izan daitezke. Era berean, alokatzaileentzako onurak ekarri ditzakete.



PAULA LANDABASO
Ikaslea

Iniziatiba ona iruditzen zait. Hala ere, zelan funtzionatzen duen ikusi beharko dugu.



AKETZA ZURINAGA
Ikaslea

Bitartekaritzarako den bitartean baliagarria izan daiteke, baina kontrola ezarri gero gutxi erabiliko dute.



MARKEL MUÑOYERRO
Ikaslea

Hainbat arazo sortzen dira lonjetan eta onuragarria izan daiteke, baina gure askatasuna murriztu dezake.

lonjakaz zerikusia duten informazio eskaera, kexa edo gainontzeko eskakizun guztiak “Gaztelonjak” programara bideratuko dituzte, gai horiek programaren barruan konpontzen saiatzeko. Hala, bizikidetzaren inguruko balizko arazoren bat gainditzeko edo konpontzeko nolabaiteko bitartekaritza beharrezkoa izatekotan, alde guztien parte-hartze boluntarioa bilatzeko prozesuari ekingo diote, irtenbidea bilatzeko. Adingabeen kasuan, berriz, horien arduradunen baimena beharrezkoa izango da. Adostasunik lortu ezean, espedienteak beste bide bat hartuko luke, eta ondorioa lonja ixtea izan daiteke.

Programan parte hartzen duen lonja bakoitzak su-itxalgailu bi eta botikin bat jasoko ditu, egitasmoaren inguruko informazio guztia biltzen duen liburuxka batez batera.

Gazte-lonjen diagnostikoa

Getxoko 1.600 gazte inguruk erabiltzen dituzte lonjak udalerrian. Lokal horiek, batez ere, Algortan eta Romon daude. Erabiltzailearen profila 20 eta 30 urte artekoa da, gizonezkoa, bertokoa eta euskalduna (lonjan ia euskaraz egiten ez duten arren), Getxoko lonjen egoerari buruzko diagnostikoa izeneko dokumentuan jasotzen denez. Neguan erabiltzen dituzte gehien, eguraldi txarragaz aterpea izateko, eta bertan berba egin, telebista ikusi eta jolasten dute, artean zerbait jan eta edaten dutela. ◀

Getxo

Kolore guztietako mozorroak

Asteburu honetan emango diete hasiera Getxoko inauterietako ospakizunei; hil bukaerara arte luzatuko dira.

Mozorrozaleek hamaika aukera izango dituzte egunotan nahi dutena mozorro-tzeko eta ondo pasatzeko. Bada, lehenak udalerriko ikastetxeko ikasleak izango dira, barikuan bertan. Horiek goiz-goizetik ibiliko dira kaleetatik zehar abesten eta dantzatzen. Romon ere egun horretan emango diete hasiera ospakizunei. Arratsaldean umeen mozorro lehiaketa egingo dute, tabernetan zehar. Hurrengo egunean, zapatuan, neska-mutilentzako jokoak eta tailerrak egingo dira goiz osoan,

Santa Eugenia plazan. Arratsaldean, berriz, txokolatea banatu eta kalejira eta mozorroen desfileari emango diote hasiera Cervantes plazan. Iluntzean, haurrentzako ikuskizuna eta Gora Herria taldeagaz erromeria, Santa Eugenia plazan. Domekan, berriz, goiz osoan Bolivar konpartsa eta senitarteen kontzentrazioak, kalejirak, bazkaria eta dantza koreografikoak egingo dituzte, Santa Ana eta Santa Eugenia plazetan.

Hurrengo egunetan Areetako, Andra Mariko eta Algortako txanda izango da. Lehenengo auzoan erromeria, pintura tailerra, euskal dantzen tailerra eta erakustaldia, mozorro-lehiaketa eta sari-banaketa egingo dituzte. Algortaren kasuan zapatukoa hasiera baino ez da izango, ospakizunak hila 28ra arte luzatuko baitira. Hala, otsailaren 14an erraldoiak eta buru-

handiak ibiliko dira Algortan barrena. Igandean, berriz, euskal inauterietako kalejira egingo dute kalez kale. Otsailaren 20an, domekan, umeentzako ekitaldiak egingo dituzte arratsaldean zehar, hala nola, tailerrak, txokolatada eta fanfarria. Hurrengo egunean, auzoko ospakizun handia izango da: koadrilen mozorro-txapelketa, hain zuzen; aurtengo gaia filmak izango da. Horrez gainera, besteak beste, desfilea, bazkaria, ginkana eta erromeria egingo dituzte Telletxen. Bien bitartean, San Nikolas ibilbideak umeentzako eta nagusientzako mozorro txapelketa egingo du. Domekan, hurrek hartuko dute berriro protagonismoa puzgarriakaz eta txistorradagaz, Telletxen.

Amaitzeko, otsailaren 28an San Nikolas ibilbideko mozorro txapelketako sariak banatuko dituzte. ◀

Inauteriak

Eskoletan

Otsailak 13, barikua

Romon

Otsailak 13, 14 eta 15

Areetan

Otsailak 14, zapatua

Algortan

Otsailak 14, 15, 20, 21, 22 eta 28

Andra Marin

Otsailak 15, domeka

Dinamika berria aurkeztuko du GEDk

Getxoko Gure Esku Dago taldeak 2015erako planteatuta dagoena jakinarazteko aurkezpene egingo du otsailaren 18an, eguaztenaz, Algortako Fadura kiroldegian; hitzordua 20:00etan jarri dute.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, udalerriko pertsona ezagun askok parte hartuko dute “Erabakia #ehuntzen” dinamika aurkezpen horretan.

Joan den ekainaren 8an Getxoko erabakitze eskubidearen aldeko taldeak 2.500 auzokide mugiarazi zituen Gure Esku Dago dinamika antolatutako Durango eta Iruñea arteko giza-katean parte hartzeko. Aurten, berriz, beste erronka “polit” bat aurkeztuko dutela aurreratu dute; horretarako egin dute deialdia. ◀

Bertoko toponimia ezagutzeko bideoak

Urtero antolatzen diren ibilbide toponimikoei buruzko euskarazko bideo bi egin ditu Udalak, Foru Aldundiaren eta Labayru Ikastegiaren laguntzagaz. Ibilbideok udalerraren toponimia eta ondare kulturala eta naturala ezagutaraztea dute helburu. Ikastetxeek, institutuek, euskaltegiek eta interesa duen orok parte hartzen dute ibilbideetan. Aurten, gainera, gaiak alde aurretik landu ahal izango dira. Bideoetan Neguritik Bizkai-ko Zubira arteko eta Portu Zaharretik Aixerrotarako ibilbideak ikus daitezke. Bideo bakoitzak 12 minutu inguru irauten du, eta aipatutako aldeetako berezitasunak azaltzen dira. Horrez gainera, adituen azalpenak eta mapak ere agertzen dira. ◀



Gerra Zibileko eta frankismoko biktimak oroitu zituzten otsailaren 7an, zapatuan. Getxoko udalbatza ordezkaritza duten alderdi politiko guztietako ordezkariak bildu ziren oroitaldian. Horiekaz batera, biktimen zenbait senitarteko eta auzotar egon ziren.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84



I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

Leioa



Pablo Astrain margolari getxoztarra Leioako Mendibile Jauregian.

“Txakolinak uzten duen aztarna islatu gura dut”

Pablo Astrain getxoztarra Mendibile jauregiko mural-lehiaketaren lehenengo edizioa irabazi du, “Huella” artelanarekin. Horma-irudi hori Leioako txakolin-etxean zabalduko duten merenderoan margotuko du Arte Ederretan lizentziatuak.

Pablo Astrain EHUKo Arte Ederretan lizentziatu getxoztarra apirilaren bukaerarako margotuko du “Huella” murala Leioako Mendibile jauregiko merenderoan. Berak irabazi du Bizkaiko txakolinaren egoitzak antolatutako horma-irudiaren sariketaren lehenengo edizioaren saria.

Zelan bururatu zitzaizun horrelako horma-irudi bat marraztea?

Txakolinaren elaborazioa zen lehiaketarako jarritako gaia. Mahastietan hasi eta ardoa ekoizten duten arte, prozesu

horrek uzten duen “aztarna” islatzea bururatu zitzaidan. Muralean barrena pausoz pauso irudikatuko ditut horiek guztiak.

Noiz hasiko zara margotzen? Noizko egin behar du bukatuta?

Apirilaren amaierarako egon behar du. Baina, oraindino, ez dakit noiz hasiko naizen. Unibertsitatearekin berba egin behar dut eta lanean ere banabil. Bitartean, zer material erabili begiratzeko hasiko naiz eta ahal dudanean margotzeki ekingo diot. Besteak beste, pintura plastikoko teknikak erabili-

ko ditut eta espraiak ahal bezain beste. Horiek ditut gustukoen.

Ez duzu bakarrik pintatuko...

Aztertu behar ditudan kontuetako bat da hori. Ez da gauza ziurra. Unibertsitateak eskaini didan aukeretako bat da, proiektuan parte hartzeko interesa daukan ikaslerik badago, horretarako bidea ematea. Horrela bada, niretzat ederto! Kontua da orain beste hainbat horma-irudiekin dabilatzala... Horretarako aukerarik ez badago, zer egingo diogu. Ordu gehiago eman beharko ditut. Ez da ezer gertatzen.

Zer adierazi gura duzu artelan honen bitartez?

Inguruan ditudan horma-irudietan, baserrietan... oinarritzen saiatu naiz, beti ere nire izaerara moldatuz. Berbarako, besteak beste, Getxoko Andra Mari kiroldegian dagoen murala hartu dut adibide bezala. Bestalde, Unibertsitatean diseinua eta pintura uzartzen ibili naiz eta hori ere agertzen ahalegindu naiz. Baina, adierazi... ezer gutxi. Horrelako lanak enkarguak dira. Ez dago besterik.

Orain arte zelako artelanak egin dituzu? Beste saririk jaso al duzu?

Noizbait horma-irudiak egin izan ditut. Baina ez horren handiak. Bestalde, nik egindako koadro bana saritu zuten Cambreko (A Coruña) eta Salamancako lehiaketetan.

Bizi ahal izateko ematen du arteak?

Bakoizak jartzen dituen gogoen arabera izaten da hori, nire ustez. Gaur egun gaitz ikusten dut, bete-beteko arduraldia eskatzen duelako. Margotu ahal izateko lan egiten nabil orain, eta gainontzeko denbora pintatzen ematen dut. Horrez gainera, batzuek erraztasun eta abiada handiagoak izaten dituzte artelanak sortzeko. Besteok, oster, esfortzu handiagoa egin behar izaten dugu.

Egitasmo berririk darabilzu esku artean? Lehiaketarik begibistan?

Erakusketa prestatzen nabil, baina oraindino ez daukat koadro nahikorik ikusgai jartzeko. Kontuan hartu behar da lehiaketa bat irabazten duzunean saria jaso bai, baina antolatzaileak gertatzen direla artelanarekin. Koadroa erosiko balizute bezala izaten da. Hortaz, A Coruña-koa eta Salamancako zenbatuta, bi pintura gutxiago daukat. Bitartean, ikasgela lortu dut eta denbora askorik behar ez duten artelanak egiten nabil, erretratuak eta antzekoak, *book*-a osatzeko. Asko kostatzen zait niri koadroak egitea. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
 info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

Gai (des)ordena

LOHITZUNE RODRIGUEZ AURREKOETXEA
 Filosofian lizentziatua

Euskal trifasikoak

Euskaraz bada esaera labur bezain aberats bat: “izenik badu, bada”. Teoria filosofikoetarako abiapuntu nahikoa ematen badu ere, metafisikari baino, fisikari heltzea nahiago dut gaurkoan: entxufeei, zehatz-mehatz.

Izan ere, azkenaldian gai honi bueltak ematen ibili naiz: euskaltzaleok pentsatu ohi dugu geure etxea etikaren oasia dela, eta adiskidekeriak eta antzekoek izen-abizen erdaldunak dituztela. Esango nuke, baina, mundu honetan ere, izena duena badela, eta, alderantziz, izenik ez duena ez dela. Ezagutu ez eta izan ez: gauza bera. Horra nire hausnarketarako gonbitea, okerra agian, baina izena du, eta, beraz, bada. ◀

Leioa

Martitzenean ere jai

Erdigunean ez ezik

Txorierrin eta Pinuetan ere egongo dira aratustek ospatzeko ekitaldiak.

Ohi den legez, bi egunetan egongo dira aratustek ospatzeko ekitaldiak Leioa erdigunean. Asteburuan ez ezik, martitzenean ere antolatzen dituzte jarduerak Udalak eta Maritxu Teilagorri kultur elkarteak, elkarlanean. Hala, otsailaren 14an eta 17an, besteak beste, nagusientzako eta haurrentzako mozerro-lehiaketak egingo dira. Leioako gainontzeko auzoei dagokienez, esaterako, Txorierrin, *Poko Piko Txiki Dace* ikuskizunagaz gozatu ahalko dute txikiek zapatuan bertan, 18:30etik aurrera. Txokolatea eta bizkotxoak, berriz, 20:15ean banatuko dituzte. Bitartean, beste hainbat jarduera antolatu dituzte Itzubaltzeta / Romo eta Pinuetako Jai Batzordeak, Itzubaltzeta Gaztetxeak, Zasi Eskola Dantza Taldeak, Ziztu Bizian Eskaut Taldeak eta tokiko elkarte bolibiarrek. Bada, otsailaren 14an, zapatuan, txokolatada egingo dute 18:00etan Pinue-



Euskal inauterietako jantziak ere egongo dira ikusgai.

tako Cervantes plazan, Leioa aldean. Ordu erdi beranduago abiatuko da kalejira bertatik.

Leioa erdiguneko ekitaldietara bueltatuz, larunbat arrastian umeentzako jarduerak egingo dituzte, esaterako, tailerrak eta puzgarriak, Euskal Etxeen plazan. Nagusiagoak direnek, ostera, bestelako egitaraua dute, gura izanez gero: pintxo-poteoa, mozerro lehiaketaren desfilea, Lisker tal-

deak girotutako dantzaldia eta mozerro-lehiaketaren sari-banaketa, Ikea Barri plazan, lehen egun horretako programa osatzeko. Otsailaren 17an, martitzenean, txikienak izango dira protagonista. Goizean, umeentzako tailerrak, puzgarriak eta *Jolas, asmakuntzak salgai* ikuskizuna izango dituzte Kandelazubietako kiroldegian. Eta arrastian, besteak beste, mozerroen lehiaketa egingo dute. ◀

Leioa erdigunea

Otsailak 14, zapatua

12:00

Haur eta gazteentzako puzgarriak eta jolasak Euskal Etxeen plazan

19:00

Pintxo-poteo musikatua

21:00

Mozorro-lehiaketako partaideen desfilea

22:00

Dantzaldia Lisker taldearekin, Ikea Barri plazan

23:00

Leioako XXV. Mozerro Lehiaketaren sari-banaketa

Otsailak 17, martitzena

11:00

Haurrentzako puzgarriak eta jolasak, Kan delazubietako kiroldegian

12:30

Haur-ikuskizuna: *Jolas, asmakuntzak salgai*

13:30

Aratuste-tostadak banatzea

16:30

Arrastiko jardueren hasiera: fotomatoi-gunea

17:30

Ikuskizuna: *Diskofesta*

18:00

Mozorro-lehiaketako partaideen desfilea

19:00

Leioako Haurren XXII. Mozerro Lehiaketaren sari-banaketa

Txorierrin

Otsailak 14, zapatua

18:30

Poko Piko Txiki Dance

20:15

Txokolatada

Arruebarrena Metrotik kanpo gura dute

Metro Bilbaoko garraio-enpresako zuzendariak, hau da, Eneko Arruebarrena Leioako alkate ohiak, otsailaren 4an agertu behar zuen Eusko Legebiltzarren Ingurumen eta Lurralde Politika Batzordean. Pinosoloko kiroldegiko proiektuan izandako kudeaketaz azalpenak eman behar zituen. Leioako kiroldegi berriko “harri bat ere jarri gabe leioaztar guztiei 3,5 euroko galera ekartzea” leporatzen diote EAJk ez beste alderdi guztiek. Ostera, ezin izan zuten saioa egin, izandako elurteak legebiltzarkideetako batzuk Gasteizera heltzea eragotzi zuelako. Atzeratu arren, oraindino datarik ez dauka Arruebarrenaren agerraldiak. Bitartean, PPK aurrera darrai Arruebarrena Metro Bilbaotik kargugabetzeko eskaerekin. Besteak beste, otsailaren 3an, Bizkako Batzar Nagusien osoko bilkuran eztabaidatu zuten popularrek aurkeztutako arauz besteko

proposamena. Hala, PPren, EH Bildu koalizioaren eta PSE-EEren aldeko botoakaz onartu zuten Aldundiari eskatzea, Metro Bilbao garraio sozietateko kide den neurrian, Arruebarrenaren “berehalako kargu uztea” bultzatzea. Getxoko udalbatzak antzeko eskaera onartu zuen abenduko osoko bilkuran. Bilboko Udalean, berriz, nahikoa izan zen EAJren gehiengoa, hori atzera botatzeko.

Pinosoloren gaineko ikerketa-batzordeak “ustelkeria zantzu garbiak” azaleratu zituen joan den urteko azaroan. Eneko Arruebarrena Leioako alkate ohiak eta Jon Loizaga Kirol zinegotzi ohiak lotzen ditu izan diren irregularitasunak. Harrezkero, azalpen publikorik ez du eman Arruebarrenak.

Loizaga ere Bizkaiko Batzar Nagusietan agertzea eskatu zuen EH Bilduk. Orduan, ostera, EAJk eta PPK eskaria tramitera ez onartzea erabaki zuten batzordeko mahaian. ◀

Arkaitz Fullaondo izango da EH Bilduren alkategaia

Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapata-Arietxe izango da Leioako alkate izateko EH Bildu koalizioak aurkeztuko duen hautagaia, hurrengo udal hauteskundeetan. 1980an jaioa, soziologoa da. Gaur egun EHUko irakaslea da Gizarte Langintza Unibertsitate Eskolan. Udalean, 2011z geroztik zinegotzia da eta Pinosoloko ikerketa batzordeetako kidea da. ◀



Bizikidetzaren gaineko ikus-entzunezkoa, abian

Udalak bat egin du Nik Mash Up webguneko bake eta bizikidetzari buruzko egitasmoagaz. Hogeita bi gaztek parte hartu dute identitate, gatazka eta bizikidetzari buruz leioaztarrek dituzten iritziak batzen dituen ikus-entzunezko mosaikoa (*mash-up*) sortzen. Mendibile jauregian batu zen 19 eta 27 urte bitarteko neska-mutilek osatutako talde hori, eta hainbat gai

jorratu zituen bertan: euskal identitatea, aniztasuna, gatazka, bizikidetzaren bakea... Adostutako galdeketa osatu zuten, eta ondoren, leioaztarrek elkarrizketatu zituzten kalean bertan. Elkarrizketak, partaideen iritzi batzuk eta ekimenaren *making off*-a sarean daude ikusgai, eta parte hartzeko aukera dago. ◀

Erandio

Aratusteak udalerriko txoko guztietan nagusi

Barikuan eta zapatuan ospatuko dituzte Aratusteak Erandion. Mozorroek Altzagan, Astrabuduan eta Erandio Landan izango dute kabia, Udalak eta elkarteek bultzatuta.



Azoka zaharrak hartuko ditu Altzagako Aratusteak. ©ERANDIOKO UDALA

Garizumaren aurreko festa heldu da, hainbaten lanari esker: koa-drilak, Radio Club Takolos, Musika Eskola, gazte-asanblada, Goi-Alde, Udala, eta Peque Ropa, Dance GM dantza eta emakume elkarteak. Barikuan, Altzagan, emakume elkarteak eta gazte-asanbladak egingo dituzte ekimenak, nork bere lokalean. Gazteek kalejira egingo dute aurretik. Astrabuduan, musika eskolako ikasleek joko dute.

Zapatua

Erandio Landako Euskadi plazako karpan, goizeko 11etatik 22:30era izango dira neska-mutilentzako ekitaldiak. Altzagan eta Astrabuduan, goizeko 11etan abiatuko dituzte umeentzako ekimenak, Azoka Zaharrea eta Mendiguren plazan. Kale animazioaren ostean, neska-mutilen mozorro-lehiaketak izango dira. Astrabuduan, Umeen Minbiziaren Egunagaz bat egin eta elkartasun-paella antolatu dute Etxegorriko 10. zenbakiko karpan. Altzagan, koadrila nagusien mozorro-lehiaketa izango da. ◀

Egitaraua

Otsailak 13, barikua

18:00 Askaria. eta tostada-lehiaketa, emakume-elkarteen lokalean.

18:30 Musika-eskolako ikasleak Murueta plazan.

21:00 Herri kalejira Altzagan zehar.

23:00 Kalezulo gaztetxearen irekiera eta DJ Loro eta Asuranceturix Sound System.

Otsailak 14, zapatua

11:00-14:00 eta **16:00-18:00** Umeentzako jarduerak, azoka zaharrea eta Mendiguren eta Euskadi plazetan.

13:00 eta **20:00** Kale-animazioa Jado, Obieta eta Ibarra eta Murueta, Lurberri eta Trabudun.

13:30 Elkartasunerako paella eta merkatu txikia, Etxegorri.

17:00 Umeen mozorro-lehiaketarako izen-ematea, azoka zaharrea.

18:00 Umeen mozorro-lehiaketa, azoka zaharrea eta Mendiguren plazan.

18:00 Txokolate-jana, Euskadi plazan.

18:30 Goi-Alde dantza-taldearen Euskal Inauteria, Euskadi plazan.

19:30 Txokolate-jana, udaletxean eta Mendiguren plazan.

19:30 Mozorro-lehiaketarako izen-ematea eta lehiaketa, azoka zaharrea eta Mendiguren eta Euskadi plazetan.

20:30 DJ Saioa, Euskadi plazan.

Tratu txarrak jaso dituzten emakumeentzat harrera-etxea

Erandioko Udalak etxerako lanak Ezarri dizkio bere buruari, parekidetasunaren bidean bortxakeria matxistaren kalteak jasaten dituzten emakumeei arreta hobetzeko.

Udalbatzak onartu berri duen *Genero indarkeriazko ekintzei aurre egiteko protokoloa*-k zehazten duenez, tratatu txarrak jasotzen dituzten emakumeentzako harrera-etxea jarriko du martxan Udalak. Udaleko etxebizitza horretan behin-behineko lekua lukete sexu indarkeriagatik bere ohiko egoitza laga behar duten emakumeek, beti ere adingabeko seme-alabarik edo dependentsia egoeran den seniderik bere ardurapean izanez gero.

Halere, ekipamendu horren funtzionamendua finkatuko duen arautegia sortzeke dago. Harrera-pisua ez da Udalak zehaztutako behar bakarra. Horrela, aurreikusitako udal zerbitzua eratzea, tratatu txarrak edota sexu erasoak pairatzen dituzten edo babesgabe dauden emakumeei arreta psikologikoa emateko. Bestalde, Udala, Ertzaintza, Osakidetza eta Foru Aldundia koordinatuko dituen mahaia sortzea agindu du, mahaiko kideak oraindino zehazteko badaude ere. Saioa Ochoa de Alda Berdintasun Plana eta Emakume Arloko zinegotziaren aburuz, elkarteak egingo dute protokoloaren jarraipena. ◀

Ekainera bitarteko ekimenak zabaldu dituzte liburutegiek

Erandioko Udal Bibliotekak dabor-dukio jakinarazi ditu Altzaga eta Astrabuduako liburutegietan zein Erandio Landako gizarte etxean ekainera arte eskainiko dituen kultur emakal-ndiak.

Otsailean, aurrera darrai Lur Korta ipuin kontalariaren “Aurorita beti polita” haur ikuskizunaren birak. Martxoan, erreleboa hartuko dio Amaia Afanadorrek, berdintasunerako ipuinak aipagai izango ditu. Pertsonak guztiak garrantzitsuak direla transmitituko diete umeei, arraza eta sexua kontuan hartu gabe. Martxoaren 30etik apirilaren 10era, berriz, Aste Santurako tailerrak antolatu dituzte,



neska-mutiek sormena lan dezaten. Apirilaren 23an Liburu Eguna dela-eta, plazetara irtengo dira liburutegiak.

Amaitzeko, maiatzean, Alberto Vargas ipuin-kontalariak natura babesteko istorioak kontatuko eta azalduko dizkie gaztetxoei. ◀

fugu
Bait futeau eginda japonier eta tradizionalean
www.fugulustafena.com
Erandio Churrua Kale 2 (enja) - Bidaia Zuhia enparantza - Areeta - GETXO
944 806 796
BidaiaZuhiaZuhia Getxo eta Laloa

txakoli motaTx
txakolina
Iteoi/Urbe enpedia 34 (Alfaroa Parke) Gorka/Erando
Tf. 94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra
Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

LUBERRI Basolanak S.L.
LOREZAINZA
SGS
Nº 88180214
SGS
Nº 88180215
Luberrri
- Soropila Ezartzea
buruzko prestaketa lanak, drenatze sistema ezartzea, funtsakko organitze lanak eta erate lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, organitzea, egurteia, aratzea eta desinfectatzea, berrikatzea, soropila gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- Inausketak
Hatzeko, mantentzeko, berriketako, zifakiko apaingaririk inausketak, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea
Aspe ibaitza 28A beheko solairua B12 lokala (ERANDIO) Mug: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net - www.luberrri.biz

Sopela

Ez ahaztu kapela!

Koadrilek, Udalak eta Meñakoz Elkartek egitarau oparoa prestatu dute aratusteei begira.

Lotsak alboratu, mozorroa jantzi eta kalera! Sopelako aratustek otsailaren 13tik 15era ospatuko dira, eta bai Udalak bai herriko elkarteek egitarau oparoa prestatu dute.

Sopelako aratustek Meñakoz kultur elkarteko pandero-joleen eskutik hasiko dira. Triki-poteoa 19:30ean hasiko dute udal pilotalekuan, eta herriko tabernak alaitu ostean, pintxo-jana egingo dute Kurene elkartean, 22:30ak aldera.

Hurrengo egunean koadrilen txanda helduko da. Aurten, gainera, mozorroi gai bat jarri diete: kapelak! Egitarauari dagokionez, 12:30etik aurrera



Aurtengo aratusteen gaia "kapelak" izango da.

poteoa egingo dute Larrabasterrako tabernetatik, eta aurten lehen aldiz, herri-bazkaria Ander Deuna ikastolan izango da. Bazkarirako txartelak Laiak eta Irubide tabernetan eros daitezke, 10 euroren truke. Koadrilek 17:00etan desfilea egingo dute ikastolan bertan,

eta 19:00etan poteoa, Sopela erdigunean.

Jaia, Urko kiroldegian

Domekan Udalak antolatzen duen jaia izango da protagonista nagusia, 18:00etatik aurrera. Azken urteetan

Egitaraua

Otsailak 13, barikua

19:30

Triki-poteoa, udal pilotalekutik abiatuta.

22:30

Pintxo-jana, Kurene elkartean.

Otsailak 14, zapatua

12:30

Poteoa, Larrabasterrako tabernetatik.

14:30

Herri-bazkaria, Ander Deuna ikastolan (txartelak, Laiak eta Irubide tabernetan).

17:00

Koadrilen desfilea. Gaia: kapelak.

19:00

Poteoa, Sopelako tabernetatik; eta jolasak.

Otsailak 15, domeka

18:00

Jaia Urko kiroldegian: desfilea, dantzaldia eta umeentzako ikuskizuna. Izena eman behar da otsailaren 13a baino lehen.

legez, jaitxo Urko kiroldegian izango da, eta osagai nagusi bi izango ditu: desfilea eta umeentzako ikuskizuna. Desfilean parte hartzeko ezinbestekoa izango da alde aurretik izena ematea (epea otsailaren 13an amaituko da).

info +: hall-kulturala@sopela.eus



Frackingaren kontrako seinaleak mugitu behar izan ditu Sopelako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eskutitz bidez foru-errepideko bazterretik seinaleak kentzea eskatu ostean. Udalak argitu duenez, "oztopoak oztopo, frackingaren kontrako aldarriagaz jarraituko dugu".

Inkomunikazioaz eta torturaz, Kurtzion

Meñakoz kultur elkarteak bere berbal-di-zikloagaz jarraituko du otsailean. Kasu honetan "inkomunikazioa eta tortura" izango da landuko duten gaia. Hitzordua otsailaren 13an izango da, 19:00etatik aurrera, Kurtzio kultur etxean. Hizlariak Iñaki Markez eta Miguel Angel Navarro izango dira, eta tortura jaso duten herritarren testigantzak ere plazaratuko dituzte. Era berean, torturaren inguruan egindako ikerketa baten ondorioak jakinaraziko dituzte. Aipatu dutenez, ikerketa horrek hainbat erakunderen babesa jaso du: Amnesty International, Nazio Batuen erakundeko kontalariak, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritza, eta abar.

Ludotekako izen-ematea, zabalik

Ludotekako txanda berria hasiko da martxoaren 1ean, eta bertan izena eman gura duten sopoloztarrek horretarako aukera izango dute otsailaren 16tik 23ra arte. Txanda berria ekainaren 30ean amaituko da. Onartuta izatekotan, familien bilera otsailaren 26an, 19:00etan izango da, ludotekan bertan. Ordainketarako epea, berriz, aurrerago izango da: martxoaren 1etik 31ra arte. Ludotekan 4 eta 12 urte bitarteko umeek parte har dezakete, eta bere ordutegia honakoa da: astelehenetik barikura (17:00-20:00) eta zapatuetan (11:00-14:00 eta 17:00-20:00). Izena emateko ezinbestekoa da Sopelan erroldatuta egotea.

info +: www.sopela.eus

Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!
Bentatu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

OIARBIDE DEKORAZIOA
Pladur: Tabikeak, zapalak, baldak
Eskaiola: moldurak, kornisak
Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...
Tf. 656 76 98 10 gorkaiarbid@hotmail.com
Andikoetxe 2, GETXO

LURREN
GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA.
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaleko atzean)

Especialistas en desayunos
abrimos desde las 07:00h.
y 08:00h. los fines de semana y festivos
www.cafebarzuazua.com
Iturgibx 13, PLENTZIA
Tf. 94.677.31.28



Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.net
www.anderdeunaikastola.net



Berango

Hurrengo astean berangoztarren txanda

Aste honetan inguruko

herrietan inauteriak ospatuko badituzte ere, berangoztarrek otsailaren 21ean eta 22an egingo dute.

Inguruko herrietako auzotarrak inauterietako jantziak gorde eta ajeagaz dauden momentuan, mozorrotzeko eta ospakizunetarako ordua helduko zaie berangoztarrei. Izan ere, udalerriko mozorrozaleek hurrengo asteburura arte itxaron beharko dute euren fantasiatzko arropak janzteko. Bada, otsailaren 21ean eta 22an ospatuko dituzte inauteriak Berangon. Aurtengo mozorrotzeko gaia zirkua- ren ingurukoa izango da.

Lehenengo hitzordua otsailaren 21an jarri dute, arratsaldeko 18:00etan

Berangoeta kultur etxean. Ordu horretan frontorainoko kalejira egingo dute. Bide horretan, auzokoek “Begara zirkua hodei artean” ikuskizunagaz gozatu ahal izango dute. Ordubete beranduago, 19:00etan, Berangoko neska-mutil txikienek berbenagaz dantzari arituko dira frontoian bertan; eta 20:00etan nagusien zein gazteen aldakak astintzeko ordua izango da, hori ere frontoian.

Hurrengo egunean, hilak 22, domekan, udalerriko Otxandategi Dantza Taldeko kideek maskarada eta zantzarra antzeztuko dute goizean, 11:00etatik aurrera. Ikuskizuna herriko auzoetan barrena egingo dute. Eguerdiko 13:00etan, berriz, Sabino Arana kalera hurbilduko dira aurtengo mozorroen jaiari behar bezala amaiera amateko. ◀

info+: www.berango.net

Estresa gutxitzeko emakumeentzako doako tailerra

Berangoko Udaleko Berdintasun Sailak estresa gutxitzeko emakumeentzako doako tailerra egingo du martxoko astelehen guztietan. Presa-ka ibiltzea, erantzukizun gehiegi hartzea, zerbaitetan jarduten ari garen bitartean hurrengo zereginen pentsatzea; egoera horiek kezkek areagotu eta estresa izatea dakartzate. Horri aurre egin nahian, aipatutako tailerrak burua askatzeko teknikak azalduko ditu, “oraina disfrutatu ahal izateko, eta kezketatik zein beldurretatik askatzeko”. Halaber, pertsonen arteko harremanak, mina izatearen sentsazioa eta ezinegon fisikoa zein mentala landuko dituzte. Horren ondorioz, “errazago lasaituko gara, emozioak erregulatu egingo ditugu eta gure ongizate orokorra hobetu egingo da”, azaldu dute antolatzaileek. Tailerrean parte hartzeko izena eman beharko da otsailaren 18a baino lehen. ◀

info+: www.berango.net

Lemoiz

Daborduko Internet bidez hartu daitezke maileguan liburuak

Lemoiz e-liburutegia egitasmoan sartu da. E-liburutegia EAEko liburutegi digitala da, herritarrek liburuak Internet bidez maileguan hartzeko aukera ematen duena. Hala, urrats honegaz, udalerriko liburutegian dauden liburuak ez ezik, EAEn egitasmo horretan dauden liburutegi guztietako liburuak eskatu ahal izango dira; eskaintza oso zabala. Mailegu bakoitzak 21 eguneko indarraldia izango du, eta bi liburu hartu ahal izango dira aldi berean irakurtzeko. Halaber, liburuak deskargatu edo streaming bidez kontsultatu ahalko dira, eskuragarri dauden gailu digitaletan.

E-liburutegian parte hartu gura duenak galdetegi bat bete eta datu pertsonalak eman beharko ditu Armintzako kultur etxean. Ondoren, erabiltzaile eta gakoa emango diote egitasmoaren sistema informatikoan sartu ahal izateko. ◀

info+: www.lemoiz.eu

Barrika

Gazteentzako sukaldaritza tailerra otsailaren 20an

Udalerriko 12 eta 17 urte arteko neska-mutilak sukaldatzen ikasteko tailerra antolatu du Barrikako Udalak. Gazteak suteen artean behar bezala mugitzen ikastea beharrezkoa da etorkizun hurbil batean egunerokotasunari aurre egiteko. Hori dela eta, Gure Ixerdia instalazioek sukaldaritza tailerra hartuko dute otsailaren 20an, barikua, 17:00etatik 19:00etara. Bi orduko ikastaro horretan, sukaldari gazteek errezeta errazak eta osasuntsuak egiten ikasiko dute. Bada, ikasitako guztia edozein dieta orekatuan ezartzeko egokiak izango dira. Halaber,

ikasgaiari modu erakargarrian, praktikoan eta dibertigarrian aurre egingo diote.

Gazteentzako mota horretako tailerrak ohiko bihurtzen hasi dira Barrikako udalerrian, azkenaldian Udalak mota horretako hainbat ikastaro antolatu baititu.

Ikastaroan parte hartzeko, aldeztu aurretik izena eman beharko da. Hala, interesatuek 946 775 163 telefono zenbakira deitu edo liburutegia@barrika.net helbide elektronikora email bat bidali beharko dute. ◀

info+: www.barrika.eu

Fantasiatzko arropak eta aurpegi margotuak frontoian



Inauteri Jaia egingo dute zapatuan. © PATXI LOPEZ

Inauteriak heldu dira gurera eta horregaz irudimenari eragiteko momentua. Gauzak horrela, Barrikako mozorrozaleek euren nahien arabera fantasiatzko arropak janzteko eta jai giro ezinhobeaz gozatu ahal izango dute otsailaren 14an, zapatua, Udalak eta Barrikako Jai Batzordeak antolatutako Inauteri Jaia egaz.

Festazaleek arratsaldean emango diote hasiera jaiari, 18:00etan, herriko frontoian bertan. Ordu horretatik aurrera auzotarrek hainbat ekimenegozatzeko aukera izango dute. Bada, Xaibor musika jartzaileak familia

osoarentzat zuzendutako disko-festa egingo du, auzotarrak dantzari- tzeke; horrez gainera, etxetik mozorrotuta hurbiltzen ez direnek, edota mozorroaz aparte gehigarri bat nahi dutenek, makillaje tailerra izango dute erabilgarri aurpegiak nahi beste margotzeko. Ondoren, frontoira hurbiltzen direnek mozorroak argazkiak ateratzeko aukera izango dute photocall gunean. Bestalde, otsailean egiten duen hotzari aurre egiteko, txokolata beroa banatuko dute auzotar- ren artean. ◀

Info+: www.barrika.eu



Baldea

UNAI BREA GONZALEZ
ARGIAko kazetaria

Gure lurpeko gas garesti hori

Gure jendarteak funtzionatzen jarraitzeko energia asko behar da. Logikoa. Gure bizimodu oparoa, izan ere, energia ugari eta merkea esku-eskura eduki izanaren ondorio zuzena da. Baina hidrokarburo “errazak” aspaldi hasi ziren agortzen; orain kostata ateratzen diren kalitate gutxiko gas eta petrolioa erauzteari ekin diote batzuek, teknika garesti eta kutsatzaileak erabiliz, ez energetikoki ez ekonomikoki (nozbait agerian geratuko denez) batere errentagarria ez den “negozioan”. Hori da, funtsean, Bizkaiko Aldundiak aginduta lekuz aldatu beharko diren errepede ondoko seinaleak uxatu gura duten fracking ospetsua. ◀

Plentzia

“Ez dezatela esan bizitza udan soilik dagoenik”

Joan den abenduan 2 urte bete zituen Danontzat gaztetxeak, eta ia urtebeteko geldialdi kulturalaren ostean, ekitaldiz gainezka etorri dira otsailean gune okupatutako gazteak, astez asteko tailer eta guzti.



Gorliz eta Plentziako gazteek kudeatzen dute Danontzat gaztetxea.

Gorliz eta Plentziako Udalen eta Kultur Etxeen eskaintzetan ez dauden hainbat gauza eskaintzen ditu Danontzat gaztetxeak, “aukera ezberdinak egoteko herrian”. Bertan gazteen elkargune bat sortu gura dute, herriari bizitza emango dion gune bihurtzeko.

Egitarau oparoa prestatu duzue hila-bete honetarako; bertaratzen denak zer aurkituko du egunotan, bada? Tailer finkoak jarri ditugu: astelehenetan gitarra ikastaroa eta eguenetan Euskal Dantzak. Horrez gainera, bari-kuro ekintza ezberdinak egongo dira.

Zelakoa da jendearen harrera aipatutako tailer horietan?

Astebete daramagu tailer hauek martxan. Lehenengo kontaktua oso ona izan dela esan daiteke, izan ere, adin desberdinetako jende nahiko hurbildu da, eta hurrengo asteetan taldeak handitzea espero dugu. Gainera, martxotik aurrera bertso eskola martxan jarriko dugu.

Aurten 3 urte beteko dira egungo egoitza okupatu eta Danontzat gaztetxea sortu zenutenetik. Zelako bila-kaera izan duzue?

Abenduan bi urte bete ziren gaztetxea okupatu genuenetik. Lehenengo ur-

tea oso aktiboa izan zen, ekintza ugari antolatu genituen. Joan den negutik hona, aldiz, programazioa gelditzea erabaki genuen, udaletxeagaz lokalaren egoera arautzeko asmoz. Hala ere, udan eguazteneko parrillada eta musika zuzenean egon zen, bi herriotako kuadrillek antolatuta.

Zelakoa da Plentziako eta Gorlizko herritarrekiko harremana?

Hasiera batean gazteak hurbiltzen ziren soilik, bai gunea antolatzeko zein ekintzetan parte hartzeko; baina denboragaz jende asko hurbiltzen hasi da. Izenak adierazten duen bezala, danontzat den gunea da, eta jendeak horrela sentitzen du. Horren adierazlea izan da gaztetxean elkarte oso ezberdinak biltzen direla, haien artean, Plentziako eskolako gurasoen elkarte, Arkote Beteranoak, Gure Esku Dago eta Legarrondo euskara taldea.

Eta udalekikoa?

Hasierako lehenengo hilabete horiek tentsio handikoak izan ziren, lokala udalarena da eta; hala, gaztetxeko bi kideren aurka salaketa jarri zuten. Hala ere, gaztetxeak funtzionatu zuen, eta horregaz Udalaren jarrera aldatzen hasi zen. Danontzat gaztetxea erreferente bilakatzen hasi zen, eta momentu honetan Udalgaz daukagun harremana ona da. Besteak beste, horren adibide da bi herrietako alderdi politiko ezberdinetako zinegotzi eta alkatearen presentzia izan dela hainbat ekimenetan. ◀

Egitaraua

Otsailak 13, barikua

19:00

Hitzaldia: “Tortura y malos tratos en el Estado español”, Salhaketa eskumenez.

Otsailak 20, barikua

21:00

Kontzertu akustikoak Lau are ale eta Amago musika taldeak.

Otsailak 27, barikua

21:00

Antzerkia: *Asalto de mata*.

Astelehenero

19:00 Gitarra ikastaroa.

Eguenero

19:30 Euskal dantza ikastaroa.

berezi
Hamburguesas Bocatas
Sandwiches Ogitartekoak
Sanwichak Platos combinados
Plater konbinatuak
SABINO ARANA, 34 48640 - BERANGO
PEDIDOS: 946 681 064 (PARA RECOGER EN LOCAL)

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gubxi denik ez prentsa”
Prentsa - Frutu lehorak - Aldizkariak - Lixareriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritzu z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA
Iacofris
MARKA GUZTIAK
24 ORDUTAN ERANTZUNA
3 HILABETKO GARANTIA
IRTEERA DOAN
Tf. 94 430 52 00 - KASUNE 18 - ALGORTA
www.iacofris.es - sat@iacofris.es

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

UKnatura
Bioeralkuntza
Ingurugiro hezkuntza
ikastaroak eta proiektuak

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
irati@algorta@gmail.com
irati
OPARIK MODA GAZTEA

Urduliz



Langabetuen mobilizazioa ospitalerako sarbide guneko lanetan.

Kontratu laburrak langabetuentzat

Orain bost hilabete bezala, lau lanbako kontratatuko ditu Udalak, krisia pairatzen laguntzeko. Denbora erdiz egingo dute lan, baina.

U ribe Kostako Behargintzak eta Urdulizko Udalak abian jarriko dute, elkarlanean, Lanbide euskal enplegu zerbitzuaren Enplegua Sustatzeko Udal Ekintzak izeneko programa. Horren bidez, Urdulizen lau peoi kontratatuko dituzte, hiru hilabeterako lanaldia emanez.

Ekimena Lanbiden izena emanda eta Urdulizen erroldatuta dauden langabeei zuzenduta dago, udal agintariak azaldu dutenez. Eta onuradunek, epe horretan, udalerrira hobetzeko lanak edo ekintzak egingo dituzte, igel-terotzan eta margolaritzan.

Horretarako, langabetuak Lanbiden adierazitako okupazioen artean, "herri-lanetako peoi orokorra" agertu behar du nahitaez. Bestalde, Lanbidek ondoko talde hauetatik aukeratu-ko ditu hautagaiak: 45 urtetik gorako langabeak (azken bederatzi hileetan gutxienez sei hil inskribatuta egonda-koak), 35 urtetik beherako langabeak, diru sarrerak bermatzeko errenta jaso-

tzen duten pertsonak eta iraupen lu- zeko langabeak (azken 18 hileetan gu- txienez 12 hilabetez inskribatutakoak). Aurreikusitakoaren arabera, datorren hilean, martxoan, programa abian ja- rri eta kontratazioak egingo dira. Ho- rren arabera, ekainean langabeziara bueltatuko dira behin-behinean kon- tratutako lau urduliztarrak.

Bigarren aldia, urte erdian

Pasa den urrian ere, Eusko Jaurlari- tzak 2013an kaleratutako laguntzetan oinarrituta, antzeko programa egin zu- ten Urdulizko Udalak eta Mankomuni- tateko enplegu eta tokiko garapenera- ko zentroak. Orduan, orain bezala, lau langabetu kontratatze-ko baliatu zuen Udalak, baina kasu hartan sei hila- betez jardun zuten beharrean, orain- goaren bikoitza. Orduko lanak sasiak kendu, bideak garbitu eta espaloiak konpontzeko obra txikiak izan ziren.

2014koa ez da urte ona izan Urdu- lizen. Hainbat lantegi itxi dira eta lan- gabetuak behin baino gehiagotan ir- ten dira kalera, ospitaleko sarbideak eraikitze-ko herri-lanetan dabilen Viu- da de Sainz enpresari lan duinak eska- tzeraz. Espainiako Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuen a- rabera, udalerrira 262 beharbakogaz itxi zuen urtea; datuen arabera, 3.930 biz- tanle ditu Urdulizek. ◀

Aratusteez gozatuko dute Elortza eskolako haurrek

Elortzako Ikasleen Guraso El- kartearen ekimenez, barikuan, otsailaren 13an, Aratusteez os- patuko dituzte Urdulizko herri-es- kolan. Elkarrekin jakinarazi duenez, arrastiko 4etatik aurrera ikastetxe-ko patioak hartuko du Inauteri jaia.

Hala, aita-amek, neska-mutilek, irakasleek, zentroko beharginek eta la- gunek disko festaz eta txokolate janaz gozatzeko aukera izango dute. "Jai- al- diaz denok gozatu ahal izateko" gu- rasoen elkarrekin ordu erdiko txandak antolatu ditu txokolatea banatzeko.

Bestalde, herrian ere izango da Aratusteezko ekimenen bat, baina le-



Urdulizko eskola-umeak. © URDULIZKO UDALA

rror hauek idazterakoan Urdulizko Kul- tur Etxea kudeatzen duen enpresak ez du oraindino egitaraua argitu. ◀

Info+: ampa.urduliz.info

Gorliz

Dena prest mozerrotzeko eta ondo pasatzeko

Ondoko herrietan bezala, mozerroak jantziko dituzte egunotan Gorlizko nes- ka-mutilek. Horretarako, lehenengo hitzordua barikuan bertan jarri dute, 18:30etan eta 19:00etan Ibarreta eta Eliz plazetan, hurrenez hurren. Horietan, ka- lejira, dantzak, txokolate jana eta trikitilariak arituko dira giroa alaitzeko. Hurren- go egunean, disko festa eta txokolatada egongo dira Ibarreta plazan, 18:00etatik aurrera. Domekan, berriz, zazpigarrenez tostada txapelketa egingo dute Ibarre- ta plazan, 13:00etan. Otsailaren 16an eta 17an, "Inauteriak munduan zehar" eta "Maskarak eta osagarriak" ekimenak egingo dituzte ludotekan. ◀

Unibertsitatea

Graduen dekretuaren aurka mobilizatze-ko deitu du Iak

Unibertsitateko graduak 3 urtera murriztu eta graduondoak 2 ur- tera luzatzeko ateak irekitzen dituen dekretua onartu berri du Espainiako Gobernuak. Halaber, dekretu horrek azaltzen duenez, graduak "eduki ge- neralistak" eta graduondoak "eduki espe- zializatuak" izan behar dituzte.

Erreforma horregaz, EU2015 es- trategiak ezarritako "pribatizazio eta merkantilizazio-ko bideari" eran- tzuten diola azpimarratu dute Ikasle Abertzaleek. Halaber, aldaketa horrek "graduaren balioaren debaluazioa, prezioen igoera izugarria, merkatua

masterrekiko kontrola handitzea eta unibertsitateen arteko ezberdintasun- ak handitzea" ekarriko dituela salatu dute. Hori horrela, ikasle sindikatuak mobilizazio eguna deitu du otsailaren 26rako Hego Euskal Herriko ikastetxe zein unibertsitateetan. Inflexio egun horretatik aurrera, martxoaren 18ko astra arte, erantzunetik eraikuntza- ra egingo dute salto; bada, hezkuntza herritik eta herriarentzat praktikan ja- rriko dute alternatiba praktikoak mar- txan jarritz, hala nola, eztabaidak eta Herri Unibertsitateak. ◀

Info+: www.ikasleabertzaleak.org



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA





Alice Francisek jarriko du denboraldi berriko aurpegirik erakargarriena.

Kurtziok, 5 urte

Sopelako kultur etxeak bere atea zabalduko ditu martxoaren 14an, eta hamaika ordutan herrian egindako kulturaz gozatzeko aukera egongo da bertan.

Bost urte bete dituen honetan, denboraldi berriko egitaraua aurkeztu du Kurtzio Kultur Etxeak, Sopela Uribe Kosta eskualdeko kultur erreferente legez bultzatzeko asmoz. Udal arduradunek adierazi dutenez, Kurtzion emozio berriak sortzea da helburua, eta denboraldi berriak ildo beretik jarraituko du. Hala, 2015. urteko lehenengo seihileko honetan programazio ikusgarriaz go-

zatzeko aukera egongo da: nazioartekoa, bertakoa, oso erakargarria eta kalitate handikoa. Horrez gainera, aurten lehendabiziko aldiz, Kurtzio Eguna egingo dute martxoaren 14an, eta aretoak bere atea zabalduko ditu, hamaika orduz Sopelan egindako kulturaz gozatzeko aukera emanez.

Bestalde, denboraldi berriko aurpegirik erakargarriena Alice Francisek jarriko du. Alemaniako abesla-

riak 20eko hamarkadako charleston eta swing doinuak gaurkotu ditu eta hip-hop eta musika elektronikoarekin nahastu. Francis bere bandarekin batera helduko da Kurtziora.

Zenbait adibide

Musikak beste hitzordu garrantzitsu bi edukiko ditu. Martxoan Ken Zazpi taldeko abeslari izandako Eñaut Elorrieta igoko da agertokira. Bere bandaz lagunduta, poeta handien testuak abestuko ditu: Sarrionandia, Benedetti, Cano, Aresti, eta abar. Kontzertu hori Korrika Kulturala egitasmoaren barruan helduko da. Apiril

bukaeran, ostera, Mikel Urdangarinen birak geldialdia egingo du Sopelan. Formatu akustikoan. Urdangarinek bere abesti berriak ezagutzera emango ditu, Getxon egin bezala, betiko kanta ezagunenak ahaztu barik.


Antzerkiak sormenaren aldeko apustua egingo du Kurtzion. Berbarako, Pabellon 6 taldeko lagunek *Fausto, herritar eredu*garri lana eramango dute Sopelara. Horren bitartez, rap, dj eta aktore ezagunen arteko nahasmena taularatuko dute, eta, hala, klasiko bat eguneratuko dute.

Euskarazko antzerkiak, berriz ere, Kurtzio bisitatuko du proposamen oso erakargarri batekin: *Pankreas*, Patxo Telleriaren sormen-lana. *Erdibana* u morezko antzezlanaren ere Sopelako kultur etxera iritsiko da, Jose Ramon So-

Musika, antzerkia, dantza eta zinea izango dira adin guztien gozamenerako

roiz eta Iker Galartza aktore ezagunen eskutik.

Dantzari dagokionez, Frantziako Claire Ducreaux konpainiak emaldia eskainiko du, txikien gozamenarako. Organik konpainia ere Kepa Junkeragaz batera helduko da, *Txapeldun* estreinatze asmoz. Haurrek ere izango dute zer ikusi. Eta zinea ez da falta izango. ◀



Urdulizen egon ostean, Kultur Leioan ikusgai egongo da otsailaren 24ra arte.

ArgiHizkiak erakusketa ikusgai dago Leioan

ArgiHizkiak Uribe Kostako literatura-lehiaketaren hirugarren edizioan irabazle suertatu ziren 10 argazkiak eta horietan oinarritutako euskarazko testu laburrik onenak da-borduko ikusgai daude Kultur Leioako hemerrotekan (2. solairuan). Otsailaren 24ra arte egongo dira bertan. Bisitak astelehenetik barikura 09:00etatik 20:00etara egin daitezke. Zapatuetan ere zabalik dago, 10:00etatik 13:00ak arte. Obrak hainbat argazkitan oinarritutako testu laburrak dira. Izan ere, lehiaketagaz, jendea euskaraz idaztera eta irakurtzera animatu gura dute antolatzaileek; eta argazkilari uri-

bekostarren lana ezagutzera eman. Leioako erakustaldia amaitu eta gero, ArgiHizkiak erakusketa Lemoizko kultur etxean ikusi ahalko da, otsailaren 26tik martxoaren 8ra; eta Gorkizko Sertutxena eraikinean, martxoaren 10etik 22ra.

Egizu Getxo Euskaldun elkarteak eta UK aldzkariak 2014ko erdialdean abiatu zuten ArgiHizkiak lehiaketaren hirugarren edizioa, Uribe Kostako hainbat erakunde publiko (Leioa, Berango, Getxo eta Makomunitatea) eta elkarterekin (Borbots, Bizarra Lepoan, Aitxu!, Berbalamiñe eta Leioako berbalagunak) elkarlanean. ◀



En tierra de sangre y miel filma barikuan emango dute.

Generoari so, Urdulizen

Urtero egiten duen legez, genero ikuspegiko zine-jardunaldiak antolatu ditu Urdulizko Inola emakumeen elkarteak. Hala, otsailaren 13an, bari-kuan, emango dute lehengo pelikula. Oraingo honetan, *En tierra de sangre y miel* filma aukeratu dute. Martxoaren 6an, ostera, *Las maestras de la Republica* proiektatuko dute. Eta apirilaren 10ean, *La cocinera del presidente*. Emanaldi guztiak 19:00etan hasiko dira Urdulizko kultur etxean, sarrera doakoa izango da. *En tierra de*

sangre y miel pelikula 2011ko abenduaren 23an estreinatu zuten Amerikako Estatu Batuetan, Angelina Jolie aktoreak idatzitako gidoian oinarrituta.

2012an heldu zen Europako zinema-aretoetara. Jolik berak zuzendu zuen. Hortaz, aktore estatubatuarak gidatutako lehenengo filma dugu. Ikus-entzunezko lanak bosniar jatorriko emakume musulman batek eta serbiar soldadu batek osatutako bikotearen arteko amodiozko istorioa

dauka oinarri, eta Bosniako Gerraren krudelkeriak zelan eragin zien. Polemika piztu zuen filmak, besteak beste, Bosnian gertatu ziren borrotxaketa masiboak ere gaitzat hartzen dituelako. Horregatik guztiagatik, Sarajevon grabatu beharreko irudiak Budapesten hartu behar izan zituzten, arazoak tarteko.

Bosniara Nazio Batuen Erakundearen (NBE) eskutik bidaiatu ostean bururatu zitzaion filmaren gidoia idaztea Abgelina Jolieri. ◀



© BARRIKAKO UDALA

GORLIZ / BARRIKA

Tostadak gozoago zeinek egin lehian Gorlizen eta Barrikan

Aratusteeekin batera, ohi den bezala, tostada-lehiaketak antolatu dituzte Uribe Kostako eskualdeko hainbat udalek. Gorlizen, otsailaren 15ean, domekan, egingo dute seigarrenez sariketa. Hala, lehiakide bakoitzak sei eta dozena bat tostada artean aurkezteko aukera edukiko du 13:00etatik 13:30era, Ibarreta plazan. Udalak adierazi duenez, etxean bertan egin behar dira eta aurkeztu beste barik. Zein osagai erabili, libre. Hori bai, 12:00etan izena eman behariko da, Ibarretan bertan. Bitartean, Barrikako Udalak zazpigarrenez antolatu du sariketa. Hala, lehiakide bakoitzak ogizko dozena bat torrada aurkeztu behariko du otsailaren 16an, astelehenean, udaletxeko beheko solairuan, 18:00etan. Pertsona birentzako hiru afari dago sarrietan, Barrikan. Tostadak, batutako lagunen artean banatuko dituzte herri bietan. ◀

2015/02/12

Zinegoak

Kultur Leioa | Leioa
Gay-lesbo-trans nazioarteko zin emajaldia, *DETI 04* dokumentala eta *Prinsesa* film laburra Egunean bertan gonbidapena eskatu 20:00

2015/02/12

Rufus taldearen pop kontzertua

Billares taberna | Getxo
Gebo Zuzenean saloen barruan Sarrera, doan 20:00

2015/02/13

Incomunicacion y tortura hitzaldia

Kurtzio kultu etxea | Sopela
Meñakoz elkarrearen eskutik Hizlariak: Iñaki Markez eta Miguel Angel Navarro 19:00

2015/02/13

Kontularien Kluba

Algortako Kultur Etxea | Getxo
Ipuiin-kontalaria izan edo entzun nahi duten nagusiez osatutako saioa, gazteleiraz. Oraingo honetan, "Corpore sano" Sarrera, doan 19:00

2015/02/13

La isla minima filma

Andres Isasi musika-eskola | Getxo
Filmean proiektzioa eta foruma, 16 urtetik gorakoentzat Sarrera: 2-90 euro 21:00

2015/02/14

Paella solidarioa

Astrabuduako batzoki aurrean | Erandio
Minbizia daukaten haurren alde Zozketak egingo dira 13:30etik aurrera

2015/02/14

Sopelako X. Duatloia

Udaletxeko plaza | Sopela
Izen-ematea eta informazioa: www.triatloi.org 16:00etatik aurrera

2015/02/14

La pequeña Venecia filma

Berango Antzokia | Berango

12 urtetik gorakoentzat

Beldurrezko ipuin barregarriak, entzungai Romon

Otsailaren 19an, eguenean, ipuinak entzuteko aukera edukiko dute Gobe-la haur-liburutegian 3 eta 6 urte arteko neska-mutilek. Baina ez dira edo-zelako ipuinak izango. Maite Frankok *Dar-dar? Kar-kar! Beldurrezko ipuin barregarriak* izeneko saioa eskainiko du 18:00etatik aurrera, euskaraz. Sarrera doan izango da, gelaren edukiera bete arte. Maite Franko (Irun-Hondarribia,

1971) ipuin-kontalariak dio “txipiroi-arantzale baten eta lehorreko lamia baten zazpigarren alaba” dela. Antzer-kigintza, irakaskuntza, bikoizketa eta literaturaren ur handietan oinak busti-takoa dugu Franko ipuin-kontalaria. 2004az geroztik, ipuin kontaketa-reno barean dabil. Orduetik eta 2013ko udara arte 1-700 saio inguru eskaini zituen. Bertan, ahoz aho ibilitako ipui-

nak, argitaratu berriak zein Frankok berak sortutakoak nahastu egiten ditu, jolasakaz, asmakizunakaz eta dramatizazioakaz, barruan umore, misterio, “mezu positiboak” eta kresala ugari jarrita. Ostera, ipuinak aitzaki, 2010ean Berdinola eta Babesola hezkuntza programak sortu zituen eta gaur egun haiekaz dabil beharrean. ◀

Enrique Lopezen paisaia margolanak Algotan otsailaren 28ra arte

“Gure paisaia” erakusketak zera proposatzen du Enrique Lópezen begitardana analitiko eta artistikotik gure inguruna hurbiltzea. Erakusketan, gure sustraien bidez eraikitako mundu bat aurkituko dugu, otsailaren 28ra arte, Algotako Torrene kaleko aretoan. Nortasun handiko artista da Lope. ◀

2015/02/14
Lüiyoung & The Maha beach connection rock taldea
Andres Isasi musika-eskola | Getxo
Neguko bidaia zikloaren barruan
Sarrera: 5 euro
19:30

2015/02/15
Astrabuduako Fotoclubaren argazki-irteera Ondarroara
Astrabuduako taxi-geltokia | Erandio
Itzulera, 14:00etan
Informazioa: 696 758 354
08:00

2015/02/15
Harri-zulatzaille txapelketa
Andres Mendiguren plaza | Erandio
Taldea: Trapagaran, Kabezes, Las Carreras, Gallarta, Erekatxo, Burdin gaztea Ortuella, Kz Kolpeka
12:30

2015/02/15
Campanilla, hadas y piratas haurrentzako filma
Andres Isasi musika-eskola | Getxo
Adin guztientzat
Sarrera: 2,10 euro
17:00

2015/02/15
Dantzaldia orkestrarekin
Altzagako azoka zaharra | Erandio
Pergola taldeak grotuko du dantzaldia
Sarrera, doan
17:30

2015/02/15
Frackingaren kontrako asanblada
Kurtzio kurtur etxea | Sopela
Sopelan sortu berri den taldeak bigarren batzarra egingo du
18:00

2015/02/17
Plentziako Zirku Eskola
Ikastetxea | Plentzia
Zirkutailerak eta musika, Plentzia Eskolako Gurasoen Elkarteak antolatuta
Sarrera, doan
17:30-20:00

SOPELA

El viaje de Bettie
ikusgai Kurtzio kultur etxean

Otsailaren 19an, eguenean, *El viaje de Bettie* genero ikuspegiko filma ikusgai egongo da Kurtzio kultur etxean, gaztelaniaz. Emanaldia 18:00etan hasiko da. Sartzeari deialde izan arren, gonbidatuenak hamar egun lehenago jasotzeko daitezke Kurtzion bertan. Catherine Deneuve da pelikularen protagonista. ◀

“FESP-ARDECO-INT”
CATHERINE DENEUVE

EL VIAJE DE BETTIE

EMMANUELLE BÉRIOT

Friends. Abentura munstroen uhartean filmaren irudi bat.

Euskarazko pelikula, Berangon

Otsailaren 15ean, domekan, Zineuskadi elkarteak euskaratutako *Friends. Abentura munstroen uhartean* ikusgai egongo da Berango Antzokian. Emanaldia 18:00etan hasiko da, eta sarrera, doan. Uharte misteriotso batean bizidiren munstroez dihardu pelikula. ◀

Noiz: Otsailak 15, domeka. 18:00
Non: Berango Antzokia
Sarrera: Doan

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Elgoibar aldeko pagadian eraikitako muinotxoa eta gurutze txikia.

Gudariak gogoan, Bilbon

Zirardamendin zendu ziren 1936ko irailean Emeterio Llavori erandioztarra, Sabin Atutxa getxoztarra eta Eusebio Gaubeka leioztarra.

Bilboko Zazpi Kaleetako Arkeologia Museoan ikusgai egongo da otsailaren 28ra arte *Goazen gudari danok...* izeneko erakusketa. Horren bidez, Sabino Arana Fundazioak omenaldia egin gura die 1936ko irailean Zirardamendiko (Elgoibar) frontean hil ziren milizianoei. Besteak beste, bertan zen-

du ziren Emeterio Llavori Erandioko semea, Sabin Atutxa getxoztarra eta Eusebio Gaubeka leioztarra; baita Juan Agirre Mungian jaio baina As-trabuduako Udal Uri Batzarrean EAJn afiliatutako laguna ere. Arkeologia Museoan batutako "aztarna", argazki eta testuen artean gidatutako bisita egingo du hilaren 25ean, euskaraz,

Iñaki Goiogana erakusketaren ardura-dunak.

Sabino Arana Fundazioaren arabera, euskal gazte haien kemenak eragotzi zuen armada altxatuak aurrera egin zezan, eta frontea zenbait hilez egonkortzea lortu ere egin zuen. Horrenbestez, Autonomia Estatutua Madrileko Gorteetan urriaren 1ean onetsi zuten. Hala, estatutua indarrean zegoenez, urriaren 7an Lehendakari aukeratu zuten Jose Antonio Agirre, eta Gernikan bere kargua zin egin ahal izan zuen. Hartara, lehenengo Eusko Jaurlaritzak armada bat sortzea lortu zuen, baita milaka eta milaka errefuxiatu (umeak, batez ere) sorotsi zituen laguntza-sare bat ere, unibertsitate bat, euskarazko egunkari bat, hezkuntza-sare bat, eta abar. Hori guztia 1936ko urritik 1937ko ekainera bitartean.

"Izan ere, altxatuek euren aurre-rakuntzan jarraitzerik izan balute, ez zatekeen eratuko lehenengo gobernu autonomiko hura, eta, ondorioz, ez ziren gauzatuko hark ondoren jadetsi zituen lorpenak. Beraz, ez da faltsua, ez gehiegikeria", dio Goioganak, esatea ze "Agirreraren Gobernuaren zereginari eutsi zioten zutabeetako bat, irailaren 25ean Bilboko Patronatutik abiatu ondoren Zirardamendin borrokatu ziren gudari haiek finkatu zutela, eurentariko batzuek bertan bizia ere heroikoki galduz". Bilbora heldu aurretik, besteak beste, Erandion eta Leioan egon da erakusketa. Arkeologia Museoan hilaren amaiera arte izango da. ◀



© KULTUR LEIOA

Markeliñeren *Kixote*, familia osoarentzat Kultur Leioan

Markeliñe taldeak *Kixote* antzezlan eskainiko du otsailaren 15ean, domekan, Kultur Leioako auditorioan. Emanaldia 18:00etatik aurrera izango da eta sarrirek 5 euro balioko dute. Testurik gabeko ikuskizun horretan, bi antzezlek eta trapezista batek parte hartzen dute. Adiskidetasuna eta pertsona ames-larien inguruko istorioa da. Alegiazko unibertso batean, *Kixote* eleberriaren

pertsonaiak oinarri hartuta, errealitatearen eta ametsen munduak alderatzen dira antzezlanean.

Kixotek amets bakarra dauka: hegan egitea. Sancho (antzezlan hone-tan, Sancha) bere lagunak benetako mundura erakarri eta lurrean ainguratzten du. Baina Sanchak normaltasunak dakarren aspergarritasuna ezagutzen du. Eta, hala, ahalegin guztia egiten du ametsa itzul dadin. ◀

Kakorratx-lana erabilita panpintxoak eta jostailuak egiten erakutsiko du Egizuk

Otsailaren 25etik martxoaren 25era bitartean, *Amigurumiren hastapenak* izeneko ikastaroa eskainiko du Uxue Urrutikoetxeak, Egizu Getxo Euskaldun elkartearen eskutik. Denetara bost saio egingo dira, eguaztenero, 19:30etik 21:00etara, Algortako Aldai patronatuan (Karitate kalea, 1-behea). Gainera, berbalagunentzat, Bizarra Lepoan bazkideentzat eta Egizuko beste-lako taldeetan (dantza, yoga, mendia, bizikleta, sOrtuak...) dabilzanentzat prezio bereziak egongo dira. Hala, ize-na emateagatik 30 euro baino ez dituzte ordaindu behar izango horiek guztiek, eta beste 8 euro, materialerako. Kanpokoek, oster, 35 euro eta 10 euro jarri beharko dituzte, hurrenez hurren. Saioetan, eskuekin kakorratx-lana egingo dute, eta hortik abiatuta, panpintxoak eta hasteko aspaldiko jostailuak osatuko dituzte. ◀

info+: egizugetxo@gmail.com

Tel.: 644 277 155

Toponimia-ibilbideak aurretik prestatzeko bideo bi argitaratu ditu Getxoko Udalak

Getxoko Udalak urtero antolatzen dituen ibilbide toponimikoei buruzko bideo bi egin ditu, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Labayru Ikastegiaren laguntzagaz. Ikus-entzunezko lan horietan Neguritik Bizkaiko Zubira arteko ibilbidea eta Portu Zaharretik Aixerroterako ibilbidea ikus daitezke. Bideo bakoitzaren iraupena 12 minutu ingurukoa da eta aipatutako aldeetako leku esanguratsuak, eraikin ikusgarriak, toponimia, historia, flora, arkitektura, geologia, fauna eta abar aurkezten dira, hau da, ibilbidearen berezitasunak. Horiakin batera, hainbat gaitako adituen azalpenak jaso dira, baita ibilbideak erakusteko mapak ere. Getxoko ondare kulturala eta naturala ezagutzera ematea dute helburu bideo horiek. Ikasleek eta interesa duten bestelako lagunek hartzen dute parte horrelako toponimia-ibilbideetan. ◀

Info+: www.getxo.net

“Dantza garaikidea ezagutzera ematea da liburu honen helburua”

Eva Guerrero dantzari leioztarrak *crowdfunding* kanpaina abian dauka bere idazlana finantzatzeko

Eva Guerrero dantzari leioztarrak apirilaren 16an aurkeztuko du *Destruccion Mutua Asegurada* liburua Bilboarten. Lau urtean egin duen “suntsipenari” buruzko sormen-prozesua laburbiltzen du lanak. Martxoaren 12ra arte hori argitaratzen laguntzeko dirua emateko aukera edukiko du gura duenak, Goteo Euskadi plataforman abian jarritako *crowdfunding* kanpainaren bitartez.

Zer aurkituko dugu *Destruccion Mutua Asegurada* liburuan?

Hainbat testu, lan-eskema eta aurretik argitaratu gabeko materiala biltzen ditu liburuak. Lau urtean nire lan-koardanoan idatzitako testuez gain, dantza garaikideko pieza baten atzean dagoen sormen-prozesua erakutsiko du: lan-diagramak, proposamenak, di-bagazioak, zirriborroak, eta abar. Koreografiak gogoratu eta dantzariak eszenatoki gainean egin behar dituzten mugimenduak jakiteko marrazkiak ere bertan egongo dira.

Nondik dator liburuaren izenburua?

Elkarren arteko suntsiketa ziurtatua da Gerra Hotzeko garaiko estrategia nuklearra. *Bat gehi bat, zero* esaldia-gaz ere ezaguna da. Ez dut nik asmatu. Izan ere, azken lau urtean egin du-dan lana suntsiketan oinarrituta dago; giza harremanen suntsiketan, alegia. Hau da, bikote batean, biek dakite elkar suntsituko dutela. Orain, kontua



Eva Guerrero dantzari leioztarra.

da: jolastuko dira ala ez. Hori da gutxi gorabehera liburuak adierazi gura duena. Material guztiak suntsiketari buruz dihardu.

Dantza barnetik ezagutzeko aukera emango du, ezta?

Bai. Dantza oso kontzeptuala izaten da batzuetan. Lan honen bitartez, buruan ideia bat, koreografia bat, nola sortzen dugun ikusteko aukera edukiko du jendeak; eta koreografia horretatik azken emaitzara, dantzara, zelan igarotzen garen. Ezkutuan egoten den prozesua da. Nire ustez, hori erakutsiz, dantza humanizatuko dugu. Edo beste modu batean esanda, beste ikusle mota batengana hurbilduko gara, dantza ezagutzen ez duten horiengana. Batek daki. Dantza ikuskizunik inoiz ikusi ez duen baten bat emanaldi batera joatea lortuko dugu, agian.

Egiten dugun lana erakusteko beste modu bat da liburua.

“Eskerrak eman gura dizkiet liburua diruz laguntzen dabiltzanei”

DOOS Kolektiboak sustatutako lana da *Destruccion Mutua Asegurada*. Nola sortu zen talde hori?

Orain hiruzpalau urte elkar ezagutu genuen Jemina Canok eta biok. Kultura-ekoizpenean ibili da bera, hainbat alorretan: musikan, ikus-entzunezkoetan, eta orain, antzerkigintzan. Ni neu, oster, beti ibili naiz dantza garaikidean edo antzerkian. Hala, batu eta dantzara beste ikusle mota bat ze-

lan ekarri pentsatzen hasi ginen. Hori da gure helburua. Dantza beste bitarteko (bideoa, musika...) batzuekin uzartu, jende gehiagorengana heltzeko asmoz.

Zelan finantzatuko duzue liburua?

Goteo Euskadi plataformaren bitartez *crowdfunding* kanpaina bat abian jarri dugu martxoaren 12ra arte. Maila txikiagoan ere, mezenasgo sistematzat har dezakegu hori. Hasi 8 euroekin hasi eta 500 eurora arte, diru kopuru zehatz bat jarri dezake gura duenak; eta horren truke, saria jasoko du: liburua, txapa... zenbat diru jartzen duen kontuan hartuta. Izenak ere liburuan agertuko dira. Izan ere, horiek barik liburua ez zen aurrera aterako, eta proiektu honen partaide ere sentituko dira horrela. ◀

Info+: euskadi.goteo.org

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota: 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota: 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

- ☐ **Bazkide Erabiltzailea**
☐ **Bazkide Laguntzailea**

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____ €

Izena		NA	
Abizenak			
Helbidea			
Posta kodea		Herria	
Herrialdea		Telefonia	
E-posta			

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona:
 Martiskoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

“Ahotsa eta gitarra ez dira armamentu handia, baina bai eraginkorra”

Mikel Urdangarin musikari zornotzarrak sustraietara jotzea erabaki du, 13 diskoren ostean. Bere burua, hitza eta gitarra bakarrik erabilia kontzertu bira abiatu berri du, Areetako Andres Isasi musika eskolan. Gasteiztik elur arteko bidea egin zuen haraino. Agenda arazoak tartean, telefonoz eskaini zigun elkarrizketa, jo baina pare bat egun lehenago. Lehenengo kontzertura huts egin zutenek apirilaren 24an izango dute beste aukera bat, Sopelan.



IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Bakarkako bira Areetan abiatu duzu domekan, ahotsa eta gitarra bakarrik lagun. Horrek beldur eszenikoa ala zirrara ematen dizu?

Bietatik hautatu beharko banu, zirrara sortzen dit. Errespetu handia... baina beldur eszenikoaren beldurrez ibiliko banintz, nahiko gaizki ibiliko nintzateke. Zirrarak nago, gogo handiz hasteko eta egitasmo hau martxan jartzeko. Egia esanda, irrikan nago Andres Isasiko oholtza gainera ateratzeko.

Zerk bultzatu zaitu horrelako jira egitera?

Aspaldiko gogo delako esan behar dizut. Uste dut 8-9 urte daramatzadala hau buruan egosten, baina sekula ausartu gabe pauso hori ematera. Beti beste egitasmo batzuk gurutzatu direlako, bai bakarkako diskoak, bai kolaborazio-diskoak ere... Baina beti alboratu dut, baztertu, baina oraingo honetan, justu *Jainko txiki eta jostalari hura* bukatu berri, taldeko lanak bukatu berri eta birari bukaera emanda, ikusi nuen egitasmo hau gauzatzeko aukera...

Pasa den otsail aldera-edo hasi nintzen bueltak ematen ideia honegatz, jada erabakitzeke hasiera eman behar zitzaioela, oraintxe zela momentua, indartsu sentitzen nintzela. Uste nuen jada atera behar zela. Nolabaiteko behar handia neukan.

Zeure buruari jarritako erronka izan daiteke?

Zalantzarik gabe. Niretzat nahiko kontu berria izango da, sekulan ez dudalako horrelako birarik egin. Jende batek uste du hastapenetan bakarrik ibiltzen nintzela, baina egia esateko sekula ez naiz bakarrik ibili. Beti izan dut ezkerrean eta eskuman laguntza, eta diskoetan ere beti izan dut taldearen laguntza. Diskorik biluzienez ere beti izan dut laguntza. Gitarra eta ahotsarekin bakarrik bizitzan lehenengoz egitera noa, horrek sortzen didan irrika guztiagaz.

Bakarka arituta, sentimenduak adierazteko modua aldatzen da abestietan?

Egia da forma aldatzen dela, eta forma oso inportantea da bizitzan. Ezberdintzen jakin behar dugu azala

“Nire kasuan, paradoxikoki, krisia hasi baino aurreko urteak gogorragoak izan ziren krisialdikoak baino”

eta barrua, baina biak dira gauza beraren parte, eta azalak sekulako garrantzia dauka. Estetikak ere garrantzi handia du: edertasuna ez da bakarrik barruko kontu bat, kanpoko ere bada.

Eta musikan, bizitzako arlo guztietan bezala, forma hori oso inportantea da. Kantatzen duzun horrek, kantak, informazio bera dauka taldeagaz zein bakarrik, baina bakarrik jotzean, egoera aldatzen da.

Saiatuko naiz intimotasun hori intimoagoa izan dadin. Saiatuko naiz elkarrizketa sortzen publikoagaz, nahiz eta nik bakarrik hitz egingo dudana. Nahi dudana da publikoaren eta abeslariaren arteko zubi hori eraiki. Hori egin ezean, hankamotz gelditzen da gure zeregina.

Bakarrik joanda eta asmatuz gero, ez banaiz kikiltzen, uste dut lagungarria izan daitekeela sentimenduak transmititzeko eta emozioak sorrarazteko. Azken finean horretarako gaude.

Akatsak ere gehiago nabaritutako dira, ezta?

Zalantzarik gabe. Horrek ere sortzen dit errespetua eta nolabaiteko ardura, baina neure burua kapaz ikusten dut kontzertua aurrera eramateko. Nire ustez bakarrik jotzeagatik ez diot uko egingo indarrari eta kontzertu batek ematen dizun bidaia ezberdin bat osatzeko aukera horri. Nire asmoa da, eta saiaturik naiz ahalik eta kontzerturik dinamikoena lortzen nire hiru arma bakarrekin: ahotsa, gitarra eta pentsamendua, hitzen esanahia. Ez da armamentu handia, baina eraginkorra izan daiteke, lengoia belikoa erabiliz gero.

Krisiak murrizketak ekarri dizkio kulturgintzari. Formatu txikiak sortzaileen irtenbidea izan daitezke?

Txarrean beti egon liteke bide hau. Ezin da ukatu krisialdiak jotzen gaituela; jotzen gaitu musikan, antzerkian, dantzan eta kultur disziplina ezberdinetan gabiltzan guztiok.



Sopelan, apirilean

Helduko zara kantu berriakaz Areetara?

Ez banaiz heltzen espero dut ez haserretzea. Uste dut ez dela inportanteena, ez bada honetan, hurrengoan izango da edo hirugarrenean. Urtebeteko ibilbideak kolpea emango dio kantari, orrazketak eta aldaketak tartean. Batek daki. Agian aurkeztutako kantaren bat ez da ailegatuko diskora, ez diolako eutsi, ez dagoelako zure gogoaren pean. Ez diolako eutsi urtebeteko bizitzari. Batek daki. Prozesu osoa ezin da erakutsi baina kantu batek bizi lezakeen konposizioa erakutsi nahiko nuke oso zaila izan arren.

**Apirilaren 24an bigarren emanaldia eman-
go duzu Sopelan. Bertan zer topatuko dute
zaleek?**

Gustatuko litzaidake, ordurako, lehenengo emanaldiagaz alderatuta, errepertorioa aldatzea, eta, batez ere, kantu berriak eskaintzea: hiruzpalau kanta berri erakustea gustatuko litzaidake. Eta gero, emanalditik emanaldira, gustuko nuke errepertoriorari buelta bat ematea. Uste dut kantutegi nahiko zabala daukadala eta nahiko nuke bira hau aprobetxatu aspaldi kantatu gabeko kantuak abesteko, kutxan gordeta eduki dudana piezaren bat edo beste erreperatzeke; alegia, beste zuzenekoetan egin ez dudana hori egiteko.

Nire kasuan, bakarkako aterabide hori hortxe dago eta hor edukiko dut etorkizunean, eta horrek “lasaitasuna” edo ematen du, baina proiektu honen funtsa ez da krisialdia. Nire kasuan, paradoxikoki, oroitzen naiz krisia hasi baino aurreko urteak gogorragoak izan zirela, justu 2008tik aurrera heldu zirenak baino, kontzertu-emanaldiei begira. Ahaztu gabe, benetan krisiak jo gaituela eta kultura sekula ez dela egon krisialditik aparte. Krisi eternoa bizi du kulturak.

Baina zure galderari erantzunez, gitarraz soilik aritzeak eman dezake talde batek duen pisuaz libratzen zarela, baina nire asmoa da urtebeteko bira hau eta gero taldeagaz bueltatzea. Zehazki ez dakit zein talde, baina talderako asmoa daukat buruan; gauzak ez badira asko aldatzen nire buruan. Asmoa da abenduan diskoa kaleratzea talde formatuan. Azkenean, bira hau aprobetxatu gura dut sekula egin ez dudana egiteko: kantuak grabatu aurretik erakusteko. Ez dakit Andres Isasirako ailegatuko naizen kantu bakar bategaz, zer hor nabil, estu-estu. Asmoa da urtebetean ontzea lana eta abendu partean diskoa aurkezte, Getxon bertan; Andres Isasirako konpromisoa lotuta dago.

Getxo aukeratu duzu bira hasi eta lana aurkezteko.
Ez. Getxok aukeratu gaitu.

Halere, Getxotik, Algortatik pasatutakoa naiz, aspaldi Algortako Bertso Eskolako lagunekin sarri ibilitakoa naiz ni: Portu Zaharreko jaietan, Algorta-

ko jaietan eta edozein atzikiaren pean sarritan hurbiltzen nintzen. Gogoratzen zait errugbian jokatzeko nueneko sasoiaren, Algortara Getxoren kontra joatzera askotan joaten ginela... Bada halako lotura beraz, tarte asko pasatu dudalako hor, tarte politik; batez ere, Algorta aldean.

Baina berezia da, alde batetik kontzertu guztiak bereziak direlako eta gero Andres Isasin ez naizelako sekula egon, eta oso txoko polita delakoan nago, areto handia delako eta horrek beti sortzen dizu nolabaiteko xarma.

**“Bira hau aprobetxatu gura dut
sekula egin ez dudana egiteko:
kantuak grabatu aurretik
erakusteko”**

Lau hilabeteko bira, 21 herritan eta, batzuetan, asteburu berean 3 emanaldi. Zelan egiten zaio aurre?
Aste barruan deskantsatuta! Neure burua zaindud. Hala ere, lau hilabete dira, gero udan deskantsatuko dugu eta gero beste hiru hilabete: iraila, urria eta azaroa egin beharko ditugu. Ez dut uste horrelako martxa handian ibiliko garenik bigarren buelta horretan, baina horrek ere errespetua sortzen dit, kan-

tatzeko indartsu ibili behar zarelako gorputzez eta ahotsez. Aurre zelan egin... bukaeran esango dizut! Bitartean, lo egin eta ur asko edango dut.

Ohiko zaleek zer topatu dute berria?

Kontzertuetan topatu ez dutena, baina paradoxikoki nire bizitzan presenteago dagoen Mikel bat aurkituko dute: etxeko Mikel hori gitarra eskuan, etxeko sukaldean edo saloian konposatzen ibiltzen den Mikel hori, eta ikusiko dute kantuek zer nolako forma izaten duten konposatzean eta taldeak mareatu aurretik, beste forma bat eman aurretik. Normalean kantuak sortu eta estudioa eramaten dituzu, musikariei erakusten diezu, eta hasten zara beste forma bat ematen. Txaponaren beste alde hori ikusiko dute, askotan ezezagutzen erortzen dena. Jendeak kantu batzuk bakarrik forma batean ezagutu ditu, estudioak emandako forman, beti taldeagaz. Kantu horiek ahotsaz eta gitarraz jorratzeak niretzat xarma handia dauka eta nire esperantza da jendearentzat ere horrelako interesa izatea.

Saioetan eta errepidean ibiliko zara kanta sortzen. Lehena biribiltzeaz duzu Areetan aurkezteko...

Bai, baina ez dakit helduko naizen, aitortzen dut kar, kar, kar. Musikalki badaukat multzo bat, musika-laino berdintsu baten pean sortutako musika... eta hasi naiz letren zirriborroekin. Kanta bategaz egiteko erdi-konpromisoa hartu nuen, baina antolatzaileari jada abisatu nion agian ez nintzela helduko. ◀

Sopelako Duatloiak 10. urtemuga beteko du zapatuan. Pasa den asteko denboralea dela-eta, proba Euskadiko txapelketa bilakatuko da.

Hamargarrenez duatloia izango da Sopelan

K irol festa handia hartuko du Sopelak zapatuan. Hirubi triatloi taldearen eskutik, hamargarren ediziora helduko da Sopelako Duatloia, eta ohi bezala udalderria eta ibilbidea lasterkariz erruz beteko du. Euskal Herriko duatloi-zirkuituaren lehen proba izateaz gain, pasa den asteko Ermuko proba bertan behe- ra gelditu zen, eta ondorioz, Euskadiko esprint-duatloiaren txapelketa ere hartuko du Sopelako kirol ekimenak.

Emakumeak izango dira lehenengoak lasterketan. Arrastiko 4:15ean ir- tengoa dira Udaletxe plazatik, gizo-

nezkoak ordu laurden beranduago hasiko dira. Parte-hartzaileek 5,2 kilo- metro egin beharko dituzte korrikan, 19,2 bizikletaz, eta, berriro ere, korrika beste 2,5 kilometro, Udaletxe plazako helmugara iritsi baino lehen.

Oinezko bi saioak, herriko kaleeta- tik igaroko dira, osoki. Lehen atalean, duatloilariak bi itzuliz osatutako ibil- bidea egin beharko dute eta bigarren trantsizioaren ondoren, Udaletxe pla- zara heldu aurretik, beste itzuli bat eman beharko diote ibilbide berbe- rari. Bizikleta saioan, Uribe Kostako zenbait herritatik igaroko dira. Sope-



Gero eta emakume gehiagok parte hartzen du. © HIRUBI SOPELAKO TRIATLOI TALDEA

latik irten, eta Barrika, Plentzia eta Ur- duliz zeharkatu, Sopelara atzera itzul- tzeke.

Izen-ematea

Federatuak inskribatzeko epea bari- kuan amaituko da. Aurretik 250 atletek izena eman ezean, inskripzioa itxiko dute. Federatuta ez daudenek egue- nean dute epemuga. Parte hartzeko es- kaerak Internet bidez egin behar dira Euskadiko Triatloi Federazioaren web- gunean: Triatloi.org.

Argibide gehiago telefono hauetan galdetu daiteke, 17:30etik 19:00etara:

687 980 069 (Ekain) eta 687 729 897 (Iñigo).

Federatuek 22 euro ordaindu be- harko dituzte inskripzioan, eta txipa- gatik euro bi pagatu beharko dituzte: 24 euro, guztira. Federatu gabekoek hamar euro gehiago jarri beharko di- tuzte izena ematean. Dorsalak pro- baren egunean jaso beharko dira bo- xetan, Udaletxe plazan, 13:00etatik 15:30ak arte, lizentzia edo NAN aurkez- tu ostean. Aldagelak eta dutsak Sope- lako frontoian eta Abesoloko igerile- kuetan egongo dira. ◀

info+: hirubi.triatloi@hotmail.com



© ANDER-TX.REKORDS.EH

Harri-zulatzailen dema, Astrabuduan

M eatzetako hotsak nagusituko dira domekan Astrabuduan, Andres Mendiguren plazan. Goizeko 12:30etik aurrera, bertan jo- katuko da Bikoteen Arteko Bizkaiko Harri-zulatzailen Txapelketa. Ginba- letak eta lastabinek behin eta berri- ro eztanda egingo dute harri puxken aurka, harri-zulatzailen izerdiz txin- partaz ateraz, antzinako dinamitariei balizko kargak jartzeko zuloak presta- tzeke. Domekan, baina, jorratuko du- ten harrobi bakarria herri kirolak maite dituen gazteria erandioztarra izango da. Haiek inspiratzeko eta Bizkaiko

txapela janzteko zazpi bikotek hartu- ko dute parte.

Endika Madariaga Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakuntzako kideak aitortu duenez, Kz Kolpeka taldea bai- no ez da mistoa izango, beste 6 biko- teetan gizonetakoak dira: Ortuellako Burdin Gazteak, Barakaldoko Erre- katxo, Kabiezes, Las Carreras, Gallar- ta eta Trapagaran. Iaz, Trapagaranek irabazi zituen EAEko eta Bizkaiko txap- elketak zein Harri-zulatzailen Liga; Kabiezes txapeldunordea izan zen. Bi- kote Mistoen Txapelketan, Kz Kolpe- kako emakumeak nagusitu ziren. ◀

Kantxa
kirol moda
URIBE KOSTAKO KIROL DENDA



Torre 4
ALGORTAKO AZOKA

TF. 94 491 18 82
info@kantxa.eu
www.kantxa.eu



Lointek Team taldeko txirrindulariak. © LOINTEK TEAM

Sopelatik Flandriara

Lointek Team emakumezkoen txirrindularitza talde sopeloztarrak Flandrian (Belgika) abiatuko du 2015eko denboraldia. Izan ere, hilaren 28an, Omloop Het Nieuwsblad klasikaren 70. urteurreneko ekitaldietan parte hartuko du. Gainera, hamargarrenez emakumezko talderik onenak, Lointek tartean, batuko ditu *Het Volk* gaur egun desagertutako egunkariak sortutako lasterketak. Halere, festa baino giharrentzat sufrikario izan liteke Gantetik atera eta ailegatzen den proba. Ibilbidearen 80 kilometroan zehar, harriz egindako bi-deari aurre egin beharko diote, ohiko eguraldi kaxkarraz eta errepide men-

ditsuaz lagunduta. Horrek ez die kezkarik sortzen Ugeraga kirol elkarteko txirrindulariei. Are gehiago, daborduko,

Dori Ruano:
“gauza handiak egiteko taldea da hau”

ko, eta bestelako gonbidapen batzuk konfirmatzeko dituztela, hilabete biko egutegia prestatu dute, apirila bukatu bitartean hogeita proba egingo dituzte.

Lasterketa horietan Lointeken helburua argia bezain garbia izango da: ahalik eta UCI puntu gehien batzea.

Horregaz batera, aurreko denboraldietan Espainiako Kopan eta Euskaldun Txapelketan erakutsitako nagusitasuna errepikatzea dute asmoa.

Ikuspegi berria

Denboraldi berrian Dori Ruano Salamankako txirrindulari ezagunak hartu du kirol zuzendaritzaren ardura, Aritz Arberasek utzi ostean. Ruanoren esanetan, zaila izango da pasa den urteko markak gainditzea: “muga oso urruti dago jarrita, baina kirolean presiopean ez baduzu lan egiten, ez duzu ezer ere lortzen”. Ostera, baikorra da, adierazi duenez: “gauza handiak egiteko taldea da hau”. ◀

Egutegia

Otsailak 28

Omloop Het Nieuwsblad. Gante (Flandria)

Martxoak 4

Le Samyn. Quaregnon (Valonia) ★

Martxoak 7

Fleche Wanzoise. Wanze (Valonia)

Martxoak 8

Omloop van Het Hageland. Tielt (Flandria) ★

Martxoak 15

Trofeu Falles de Xativa. (Herri Katalanak) ★

Martxoak 21

Emakumeen Saria. Balmaseda (EH) ★

Martxoak 22

Sorgin Saria. Zalla (EH) ★

Cholet Pays de Loire. Cholet (Frantzia) ★

Martxoak 29

G.P. de As Pontes. (Galizia) ★

Apirilak 5

Flandriako Tourra. Brujas. Munduko Kopa

Apirilak 6

G.P. de Dottignies. (Valonia) ★

Prix de la Ville de Pujols. (Frantzia) ★

Apirilak 11

Trofeo Bicicletas Jonny. Avila (Espainia) ★

Apirilak 12

Trofeo de Zamora. (Espainia) ★

Apirilak 18

Trofeo Ria de Marin. Pontevedra (Galizia) ★

Apirilak 24

Krono-Test Banan-Banan. Elorrio (EH) ★

Apirilak 25

EPZ Omloop van Borsele. (Holanda)

Lineako Euskadi Saria. Barrundia (EH) ★

Apirilak 26

Dwars door Westhoek. Roeselare (Flandria) ★

San Prudentzio Saria. Abadiño (EH) ★

★ Euskaldun Txapelketa ★ Lotto Kopa
 ★ Espainiako Kopa ★ Frantziako Kopa

RENAULT MÉGANE LIMITED

12.000€-AN*

ATZEKO HURBILTASUN-RADARRA

BIZONA KLIMATIZAGAILU AUTOMATIKOA

MANTENIMENDUA DOAN 2 URTEZ*

RENAULT, KOPILOTURIK ONENA.

Mégane Berlina Limited gama: kontsumo mistoa (l/100km) 3,5 eta 5,6 bitartean. CO₂-aren isuria (g/km) 90 eta 129 bitartean.

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com

LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

91 506 33 58 / www.renault.es

barcelona world race

PIVE

DRIVE THE CHANGE

RENAULT



Ezker-eskuma: Iker Kamiruaga (Sopela, 15 urte, Kurene taldea), Inhar Ugarte (Algorta, 25 urte, Kurene) eta Eneko Uribe (Leioa, 19 urte, Hartzak) trinketlariak.

“Fadurako trinketa konpondu behar da”

Inhar Ugarte, Eneko Uribe eta Iker Kamiruaga senior, 2. senior eta kadeteko Bizkaiko banakako trinket txapeldunak dira. Patxi Ziskar entrenatzaileak (Kurene) lagundu ditu.

Lortutakoa ez dator berez, ezta?

Eneko Uribe: Trinketa 15 urte gaztuko izan eta harrezkero jolasten gabiltza. Aurten, zortea izan eta txapela Leioara eramanez. Lana dago hor.

Iker Kamiruaga: Txapelketa aurretik eta ostean lan gogorra egin dugu, entrenatzen. Sakrifizioa da.

Inhar Ugarte: Urteak daramatzat trinketean. Txapela lortzeak gogoak ematen ditu jarraitzeko.

Patxi Ziskar: Trinketa gero eta indar gehiago hartzen dabil. Iker oso gaztea da, baina dohain onak ditu. Iaz ere, Bizkaiko txapelketa lortu zuen banaka. Inhar, oso gaztea izanda ere, esperientzia handiko pilotaria da.

Zabalduraren, trinketa oraindino minoritario da.

E.U.: Baina gero eta jende gazte gehiago dago. Kadetetik aurrera hasten da trinketean. Ez ezker paretan beste, baina ondo. Noizean behin joaten gara Iparraldera, eta egia esan, oso gustura gaude horregaz.

I.K.: Aurten finalera heltzeko 6 edo 7 partida jokatu ditut. Iaz, 5 partida. Beraz, jende gehiago dabil.

I.U.: Bizkaian urte batzuk daramatzate entrenatzaileek trinketaren aldeko apustua egiten. Maila igotzen joan gara. Horrek eraman gaitu Iparraldeko jendeagaz jokatzera. Trinketaren erregeak dira eta haien kontra aritzea eta hobetzea da xedea.

P.Z.: Mugatik gora ohitura gehiago dute trinketean, ezker paretan baino. Gure aldean, aldrebes gertatzen da, baina urteak pasa ahala, trinketa pilotari gehiago batzen dabil. Federazioak eskolarteko txapelketetan bultzatu eta ezagutarazten du. Apustua egin du trinketaren alde, trinket asko egon ez arren. Getxoko eraikuntza konpondu behar da, behar den moduan jartzeko. Askok lagunduko lioke trinketari.

“Fadurakoa da eskualdeko trinket bakarra, baina instalazioa ez da ona”

Uribe Kostan non gehiago joki daiteke trinketean?

I.U.: Fadurakoa eskualdeko trinket bakarra da. Ez dago aukera askorik jokatzeko, instalazioa ez delako oso ona. Urribekostarrak eta trinket-jokalariak izanda, beti mugitu gara Abadiñora

entrenatzera, 17 urte ditugunetik. Bilbora metroz, eta autobusez Abadiñora. Duela 4 bat urte egin zen Miribillako trinketa, eta ordutik han entrenatzen dugu, hurbilago. Uribe Kostako jokalariak izanda, Fadurakoa ez dago aprobetxatuta.

P.Z.: Inharrek dioen legez, Miribillakoa egin arte Abadiñora joatea beste aukerarik ez zeukaten. Kirol hau bultzatzeko mesedegarria litzateke Fadurako trinketa konpontzea.

Eta aurrera begira, etorkizuna zelan ikusten duzue?

E.U.: Hau hobby bat da. Gero eta gehiago mugitzen gara Iparralderantz, haiek hona etortzen dira... Lehiatzeko, gero eta hobeto gabiltza. Gainera, Bizkaian badago jendea lan handia egiten. Etorkizuna ondo ikusten dute.

I.K.: Nire ustez, jendea gero eta gehiago dabil trinketean, eta horrek esan nahi du gauzak ondo egiten ari direla.

I.U.: Nahiz eta ekonomikoki oso errentagarria ez izan, gustatzen zaiguna da eta jarraituko dugu. Iparraldekoen kontra gehiagotan jokatzeko gustatuko litzaidake.

P.Z.: Trinketaren bultzatzaileen artean garrantzitsuen Kepa Arroitauregi pilotari ohia da. Kristoren harremanak ditu Iparraldeko pilotari guztiakaz, profesionalak zein gazteak. Trinket Tourra berak antolatzen du, eta pilotari gazteen-tzat erakargarria da.



Morales, domina jaso berritan. © RASPAS A.T.

Ingalaterran urrezko dominak Raspasentzat

Marcos Cesar Morales Sarmiento Areetako Raspas arraun-taldeko entrenatzaile eta arraunlariak urrezko domina bi eskuratu berri ditu. Morales pasa den igandean nagusitu zen Londresen, 1.400 bat arraunlarik jokatutako Britaina Handiko Indoor Arraun Txapelketetan. Moralesek 2.000 metroko proban 6:02ko markarekin irabazi zuen, 30-39 urte artekoen Masters kategorian. Kilometro bateko ariketan, berriz, Open mailan lehiatu zen, eta 2:51ko kronoak garaipena eman zion.

Arraunlaria pozik dago: “txapelketa borobila atera zait. Banekien oso zaila izango zela, probak goizeko lehen orduetatik jokatzen zirenean, marka onak egitea gehien kostatzen zaidan orduetan”. Orion eta Bostonen egingo diren Euskadi eta Munduko txapelketak prestatzeko ekin dio.



Milla sortu zuen Hernandezek. © BERANGO A.T.

Simon txikia eman diote Josu Hernandezi

Josu Hernandez Berangoko Atletismo Taldeko presidente eta bertako atletismo eskolaren zein Millaren sortzaileak Simon de Otxandategi saria jaso berri du. Urtarrilaren 30ean, Eroski Fundazioak Simon txiki deritzoten garaikurra eman zion, erakundeak Milla gaz kolaboratzen hasi zenetik 25 urte pasa ostean. Hernandez soldaduskan hasi zen atletismoan, eta 1.500 metro-tan lehiatu zen. 1984an sortu zuen atletismo eskola. Lau urte beranduago Milla abiatu zuten.

Sudokuak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.



					1	6		
	1	3	4	5				
2								
1	2						4	
	5	4		8		2		6
		8	7					
					3			
9		1	8					
	4		2			7		

		4				2	8	
				3	2	1		9
			9	4		5		
	4	6			1		2	
		2				8		
8	7				4		6	
	5				7	6	9	
			5					
2								7

4	1				5	9		
	5	6				4		1
7		2	8					
						7	9	
2		1						6
	6		1			4	8	
		4						
	2		4	5		7		
6				2				

Soluzioak

4	1	5	6	2	3	7	8	9
3	9	7	8	5	4	6	2	1
2	6	8	9	1	7	4	3	5
8	4	2	3	7	1	5	9	6
9	5	3	4	8	6	1	7	2
6	7	1	2	9	5	3	4	8
5	3	9	1	4	8	2	6	7
1	8	4	7	6	2	9	5	3
7	2	6	5	3	9	8	1	4

3	6	7	5	1	2	9	4	8
2	9	5	7	4	8	1	3	6
1	8	4	3	9	6	2	7	5
6	5	1	4	2	7	8	9	3
9	3	2	6	8	1	4	5	7
7	4	8	9	3	5	6	2	1
4	1	3	8	7	9	5	6	2
8	7	6	2	5	4	3	1	9
5	2	9	1	6	3	7	8	4

7	5	3	6	9	4	8	1	2
2	1	4	3	8	5	6	9	7
8	6	9	7	1	2	3	5	4
1	9	6	4	2	3	5	7	8
4	3	8	6	5	7	2	9	1
5	2	7	1	6	8	9	4	3
3	7	5	8	4	9	1	2	6
6	4	1	2	3	9	7	8	5
9	8	2	5	7	1	4	3	6

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Argitu kopeta, Inauteriak datoz-eta. Baliatu aste pare hau kalera irten eta lagun berriak egiteko, hotz handia izanda ere.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Zurea kartoiaren erresuma dela esan daiteke. Zenbat kutxa moztu dituzu mozorroa egiteko? Sartu oihala batzuk, eta arrakasta lortuko duzu!



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Berandu bileretara, berandu mozorrotzeko... lanean zaudela esanez. Daborduko lagunek ikasi dute eta ez dizute mozorroa egingo.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Mozorroaren gaia adosteko saioa izan zenuen. Bakoitzaren pertsonaia aukeratzeko, beste hainbeste. Merezi du haserretzea?



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Mozorrorik dotoreena egiten saiatu eta xelebreena atera zaizu. Bost axola! Ondo pasatuko duzu berdin-berdin!



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Bai, erridikulua egitera zoaz. Eta zer? Hobe hori, mozorro barik dabilen koadrilako bakarra izatea baino. Gainera, ederto pasatuko duzu!



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Oraindik horrela? Pasa den astetik abisatuta zeunden! Bukatu behingoz mozorroa. Bestela, jaietan estreinatu beharko duzu!



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Diru askorik ez, eta iazko zer edo zer birziklatuko duzu Aratusteetan kaleratzeko. Ondo aukeratu eta animo!



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Prezinto eta bridak. Prezinto eta bridak. Arazoei beti konponbide bera jartzen diezu. Saia-
tu zeozor ezberdina: zinta amerikanoa edo.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Jakin badakizu. Plazara heldu orduko, hainbeste ordu kostatu zaizun mozorroaren igual-igual jantzita ikusiko duzu baten bat.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Flipatzekoa iruditu zitzaizun jantzia. Txundituta lagako zenituzke. Baina hainbeste denbora itxaronda, zure neurrikoak bukatu dira.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Pentsatu duzu herriko Inauterietan ez agertzea. Zeuk duzu azken hitza, baina pena litza-teke, ederto pasatzeko aukera hor duzu-eta.



Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus



IKER RINCON



Lemoiz oraindino ez da

Hormigoizko eraikuntza erraldoiak hotzikarak eragiten ditu lehenengo begiradan, eta oroitzapen ezabaezinak, 70eko hamarkadako bizi zutenei. Basorda kala izandakoaren inguruan dagoen zentrala herri-mugimenduaren garaipen-sinboloa da.



Hiru hamarkada baino gehiago igaro dira Lemoizko zentral nuklearra itxi zenetik, eta oraindik ere badu zeresana Basorda itsasartean deskantsatzen duen hormigoizko erraldoiak; bada, Politika Energetikoko eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiak 96 milioi eurotan ezarri berri du zentral hori bertan behera uzteagatik pagatu gabe ko kalte-ordaina. Iberdrolak 1996an kobratu zuen “egindako inbertsioen eta lanak finantzatzeko kosteen indemnizazio” osoa, 2.273 milioi euro. Estatu Espainolak ordainketa horri aurre egiteko zor-funtsa jaulki zuen, Valdecaballeros eta Trillo Iieko zentral nuklearrak behin betiko ixteagatik emandako kalte-ordainakaz batera. Guztira, 4.383 milioiko zorra jarri zuten merkatuan. Urtarrilean argitaratutako kitapenaren ostean, zor-funts hori amortizatzeko 184,1 milioi euro gelditzen dira, horietatik 96 milioi euro Lemoizi lotutakoak. Hala, kontsumitzaileek 2015eko urrira arte ordaindu beharko dute kopuru hori argi-fakturaren barruan, CNMVk kontratatutako auditoritzak jakinarazi duenez.

Lemoiztik Bakiorako bidean mamu erraldoi batek deskantsatzen du, behin Basordas kala izandako aldean. Bere bi tontor ugerrek 1.000 tona burdineko eta 200.000 metro koadroko hormigoizko armatuko erraldoia erakusten dute. Borroka antinuklearraren sinbolo nagusia bilakatu zen 70eko hamarkadan.

Gaur egun kaioen txilioek eta olatuen oihartzunak bakarrik lagun dituen arren, 70eko eta 80ko hamarkaden artean hamaika istorioren lekuko zuzena izan zen; ehunka mobilizazio, tiro hotsak, leherketak eta bahiketak ezagutu baitzituen, besteak beste.

Antinuklearismoaren hasiera

Lemoizko zentral nuklearraren proiektua frankis-

Ehunka mobilizazio, milaka lagunen ahalegina eta 12 urte behar izan zituen mugimendu antinuklearrak zentrala ixteko

moaren azken urteetan ezagutu eta eraikitzen hasi zen, zehatz-mehatz 1972an. Urte horretako apirilaren 18an Iberduerok Mungiako Udalari zentral nuklear bat eraikitze nahia agertu zion, eta apirilaren 26an Udalak obren baimena ukatu zion, eskatutako gu-nea Hiri Antolaketa Planak “nekazaritza eremu” ezartzen baitzuen. Hala ere, Espainiako Energia Zuzendaritza Nagusiak baimena eman zion Basordan bi erreaktore nuklear jartzeko; abuztuaren 3an jaso zuten eraikitze baimena, egun horretarako obrak hasiak ziren.

Urtebete beranduago, 1973ko irailaren 27an, Euskal Herrian zentral nuklear gehiago egingo zirela iragarri zen: Mendata puntan (Deba, Gipuzkoa), Ogeian (Ea-Ispaster, Bizkaia) eta Bergaran (Tutera, Nafarroa). Horrek zentral nuklearren aurkako jarrera piztu zuen herritar askoren artean, eta aurre egiteko herri-mugimendua osatzen hasi zen.

Espainiako Industria Ministerioak bi erreaktoreak Lemoizen jartzeko baimena eman zuen 1974ko martxoaren 14an. Hiru hilabete beranduago, ekainaren 10ean, Debako Udala zentral nuklearren aurka agertu zen; eta handik gutxira, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak berdin jokatu zuten. Hori horrela, uztaila eta abuztuaren zehar inguru horretako hainbat herritarrek hitzaldi-zikloa abiarazi zuten. Horren aurrean, Iberduero ere hitzaldiak ematen hasi zen.

Zentral nuklearren aurkako herri-mugimendua erabat antolatu barik zegoen 1975ean, baina, hala ere, Tuteran hainbat ekimen egiteko gai izan ziren. Garai horretarako, nuklearren kontrakoak Txillidak diseinatutako logotipoa erabiltzen hasi ziren, ordu- tik aurrera edonon ikusiko zena.

Urtebeteren ostean, 1976ko maiatzan, Euskal Itsasalde Ez Nuklearraren Defentsarako Batzordea sortu zuten Bizkaian, eta uztailaren 3an, 150.000 sinadura aurkeztu zituzten Lemoizko proiektuaren aurka. Hilabete beranduago, abuztuaren 29an, 50.000 pertsonak hartu zuten parte Plentzia eta Gortz arteko martxan. Hurrengo hilabeteetan, gainera, Lemoizko eta Mungiako auzotarren ia gehienek zentralaren kontrako gutuna sinatu zuten; eta udalen erantzun eza ikusita, udalen kontrako salaketa egin zuten.





Zentralaren gaur egungo ikuspegia txori-begiz.

amaitu!

Deba, Ea-Ispaster eta Tuterako zentralen proiektuak bertan behera utzi zituzten 1975 eta 1976 artean, lehenengo biak herritarren presioen eraginez, eta Gobernuaren erabakiz, hirugarrena. Hori horrela, Lemoizkoa zen aurrera zihoan bakarra.

ETAren parte-hartzea borrokan

Mobilizazioak areagotzen joan ziren 1977an, eta uztailaren 14an, 150.000 lagun manifestatu ziren Bilboko kaleetan, Lemoizko lanak gera zitezen eskatuz. Abenduaren 18an, berriz, ETako komando bat zentralera sartzen saiatu zen, eta, Guardia Zibilagaz tiroketa bat izan ostean, David Alvarez Peña ETako kide plentziarra hil zen: ekintzan zauritu zen, gero atxilotu egin zuten eta ospitalean zendu zen. Hurren-

Zentrala eraikitzeak 35.000 milioi pezetako kostua izan zuen; hura gelditzea eta desmantelatzea ia bilioikoa

go egunak tentsio handikoak izan ziren, eta hainbat mobilizazio egin ziren Euskal Herrian zehar, hala nola, Plentzian eta Algortan.

Hurrengo urtearen hasieran, Iberdueroren bulegoen kontrako erasoak egin ziren, eta urtarrilaren 19an beste manifestazio bat egin zen Bilbon. Horretan, Espainiako Polizia bortizki oldartu zen manifestarien kontra. Otsailaren 28an, ETak lehergailuak jarri zituen Euskal Herriko hainbat enpresa elektrikotan. Martxoaren 17an, erakunde armatuak zentralaren kontrako beste ekintza bat egin zuen, erreak-

torean bertan. Goma-2 lehergailuak jarri zituztelako abisua eman zioten zentralari eta Radio Popularri; hala ere, bonbek eztanda egin eta Alberto Negro eta Andres Gerra langileak hil ziren. Eraso horrek eragindako kalteak izugarriak izan ziren, eta ondorioz, zentralaren eraikuntza are gehiago luzatu behar izan zuten.

Urte horretako udan zehar herri-ekimenak murriztu egin ziren, baina urriaren 8rako, nuklearren aurkako dinamika berreskuratu eta mobilizazioak jarraitu zuten. Garai horretan ere proposatu zen argindarra ez ordaintzea.

Tentsioa handituz doa

Urte bortitza izan zen 1979koa. Martxoaren 28an AEBtako Harrisburgeko Three Mile Island zentral nuklearrak istripua izan zuen, adituek “ezinezkoa” deritzoten modukoa; erreaktorearen nukleoaren zati batek fusioa izan zuen. Horrek nuklearren inguruko eztabaida areagotu zuen. Bien bitartean, EAJ ez zen zentralaren alde edo kontra azaltzen. PSOE zentral nuklearren aurka azaldu zen handik gutxira. Apirilaren 23an Eusko Kontseilu Nagusiak zentral nuklearraren inguruko kontsulta bat egitea adostu zuen. Bitartean, Guardia Zibilak hainbat elkarretaratze galarazi zituen, baita manifestarien kontra gogor oldartu ere.

Ekainaren 2an Euskal Herriko Nuklearren aurkako Komiteak jaialdia deitu zuen Tuteran, Energia Nuklearraren Aurkako Ekintzaren Nazioarteko Egurenaren harira. Jai giroa zegoen herrian, baina ekainaren 3an Guardia Zibila bertaratutako enpresa oldartu, eta Gladys del Estal 23 urteko gazte donostiarra tiro batez hil zuen. Horren ondorioz, hurrengo

egunetan istiluak eta grebak egin ziren Euskal Herri osoan zehar.

Ekainaren 13an ETak Lemoizko zentralerako turbinetan bonba bat jarri zuen, eta horren leherketak Angel Baños langilea hil zuen.

Desobedientzia zibilerako deia

Uda horretan desobedientzia zibilerako deia zabaldu zen, eta hurrengo hilabeteetan desobedientziatzeko ekintzak areagotu ziren, hala nola, Debako ibarrean, Egian eta Lea-Artibain egindako argi-itzalketak. 1980. urtean desobedientzia zibilagaz eta manifestaldiakaz jarraitu zuten han eta hemen, hainbat sabotaiagaz batera. Urte horretan bertan EAJ Iberdueroren alde agertu zen, eta uztailaren 9an Xabier Arzalluz EAJko presidenteak publikoki adierazi zuen zentralaren alde zegoela.

Bitartean, nuklearren kontrakoek Iberdueroren ordainagiriak ordainduko ez zituzten 180 hautetsiren zerrenda aurkeztu zuten; Lemoizko zentralerako lan egiten zuten enpresa guztien zerrenda ere argitaratu eman zuten.

Urte horietan guztietan zehar, ETak Iberdueroren kontrako hainbat ekintza egin zituen, azpiestazio eta instalazio lehertuz; sabotaiak etengabekoak izan ziren.

Amaieraren hasiera

ETAren jardun armatua Lemoizen gorenera iritsi zen 1981eko urtarrilaren 29an Jose Maria Ryan zentralerako ingeniari nagusiaren bahiketagaz. ETak aste-beteko epea eman zuen zentrala bota zezaten; hori egin ezean ingeniaria hilko zutela mehatxatu zuten. Ekintza horren kontrako manifestazio jendetsua egin zen Bilbon, baina erakunde armatuaren eskaera ez zenez bete, ETak Ryan erail zuen. Horren ondorioz, talde armatuaren kontrako lehenengo greba egin zen. Hala ere, Ryanen hilketak zentralaren geldialdia ekarri zuen, harik eta Eusko Jaurlaritzak esplizituki obrek aurrera egitea babestu zuen arte. Urte horretan bertan Espainiako Gobernuak energiaren inguruko eskumenak Eusko Jaurlaritzari eman zizkion. Horrek zentralaren proiektua berrabiarazi zuen urte bukaerarako, EAJ, UCD eta AP alderdien babesagaz. Hala, kapital publikoko eta pribatuko sozietate mistoa sortu zuten, obrak amaitzeko eta zentrala kudeatzeko.

Hala ere, ETak Angel Pascual Mugica proiektuaren zuzendaria hil zuen 1982ko maiatzaren 5ean, eta horren ondorioz obrak gelditu ziren; bada, langileek eurek ere ez zutelako proiektu horretan parte hartu nahi.

Irailean Espainiako Gobernuak aurrera jarraitzea erabaki zuen, baina handik hilabetera, PSOEkin hauteskundeak irabazi eta obrak bertan behera uztea erabaki zuen. Hala, gobernu sozialistak 1984ko martxoaren 28an “luzamendu nuklearra” ezarri zuen. Ondorioz, Lemoizko zentral nuklearra behin betiko itxi zen, Espainiako beste bi zentralagaz batera: Valdecaballeros eta Trillo II.

Bi urte beranduago, 1986ko apirilaren 26an, Chernobyl SESBeko zentral nuklearraren ezbeharragaz energia mota horren eztabaida piztu zen mundu osoan zehar.

Gaur egun, Lemoizko Basorda kalan eraikitako hormigoizko erraldoiak bere horretan jarraitzen du, isilik, beragaz zer egingo duten jakiteko zain. Izan ere, zentral nuklearra izateko aukera baztertuta, ziklo konbinatuko zentral elektriko bihurtzeko edo energiaren inguruko parke tematiko bilakatzeko aukerak eztabaidatu dira. ◀



Sukaldean

Kalabaza hanburgesa tomatezko marmeladagaz



OSAGAIK:

Ogia, olio, berakatza, tomatezko marmelada, letxuga, tomate, perrexila, kalabaza eta oloa.

PORTU ZAHARRA

Portu Zaharra kalea, 35. 48991 Algorta (Getxo)
Tel.: 94 460 20 33
www.portuzaharra.com

Denboralea igaro da, eta horregaz batera elurra eta euria. Bada garaia kalera irteteko eta herriatik bueltatxo bat emateko, neguko eguzkipe leunean. Hori horrela, Algortako Portu Zaharra bisitatzea baino aukera hoberik ez dago, bertan freskagarri eta mokadutxo bat hartzeko, ezker aldeko burdinazko mendiak elurtuta aurrez aurre ikusten ditugun bitartean. A ze panorama!

Portu Zaharrera heldu orduko, auzo horren izen bera daraman tabernara heldu gara: Portu Zaharra taberna. Bertara sartu orduko pintxoz beteriko barrara hurbildu eta gosea asetzeko mokadua eskatu dugu, azkenaldian arrakasta handia duena: kalabaza hanburgesa. Ez da harritzekoa horren zerga-

tia, haginkada sartu orduko gaziaren eta gozoaren kontrasteak ahoa zaporez betetzen baitu. Pintxo hori etxean zelan egin jakin nahi? Goazen bada!

Lehenik eta behin, kalabaza zati bat hartu eta plantxan frijituko dugu. Erdi eginda dagoenean, baztertu eta fin-fin txikituko dugu. Ondoren, oloagaz, perrexilagaz eta berakatzagaz nahastu eta hanburgesa forma emango diogu. Hori eginda dugula, berriro frijituko dugu. Ostean, ogia moztu eta pintxo egiten hasiko gara; hala, ogi zati bat hartu eta etxean egindako tomatezko marmelada bota, letxuga eta tomate zati bat gehitu eta frijitutako kalabaza hanburgesa jarriko dugu horren guztiaren gainean. Azkenik, ogiaren beste zatia jarri eta listo! ◀

faceguk



Zer deritzozu Korrika Lemoiztik berriro ere ez pasatzeari?

OLATZ GOROSTIAGA

LEMOIZ



Pentsatzen dut hemendik pasatzearen aukera hori galtzea pena dela herrirako. Bestalde, ulertzen dut ere bai zaila dela antolamendua. Ea hurrengoan txokotxo hau kontuan hartzen duten!

OLATZ DE QUADRA

LEMOIZ



Pena da, jai polita sortzen dugulako herriatik igarotzen denean. Hare, berdin-berdin jaitsi izan gara Plentziara edo Gortizera, eta gero hona igo eta festa egin: jan-edana eta antzinako Korrika argazkiakaz.

GABRIELE MEDAGLI

LEMOIZ



Ez dela pasako? Txantxetan ari zara! Oso txarto deritzot, Korrika ederra baita. Lemoizek zerbaiten beharra du herrian bizitza apur bat izateko. Herriak galtzen badira, kultura ere galduko da.

JUAN INAZIO MARURI MENDIBIL

LEMOIZ



Txarto. Aurrekoan ere ez zen etorri hemendik. Lehen etortzen zen, askotan pasa da hemendik. Beste bide bat hartuko zuten, baina beti pasa da hemendik, Gortiztik hontan, eta harantza ere bai.

JOSE ANTONIO ROBALO

LEMOIZ



Txarto, baina leku guztietatik ezin da pasatu, 11 egun besterik ez dira-eta. Ulertzen dut herri txikietatik ez igarotzea, baina oso ondo legoke euskara bultzatzeko. Oso zaila izan behar da antolatzea.

SEGUNDO LAVIN BARRUETABEÑA

LEMOIZ



Pentsatzen dut beharko lukeela pasa. Hobe da. Baina ez bada hona etorriko... zer egingo diogu! Zer behar da pasatzeko? Dirua? Horregatik bada... Udalak ahal badu, jar dezala dirua.

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoen 16, 2. solairua 48991 GETXO
e-Posta: hiruka@hiruka.eus
Posta Kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julen Nafarrate, Iñigo Fernandez de Martikorena, Irantzu Sagaminaga

Argazkiak:

Hodei Torres
Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri
Sustapena: Erika Martinez eta Ziortza Merino
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege Gordailua: BI-2022-2014
ISSN: Eskatua
CC-BY-SA



Erakunde laguntzaileak:



Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jauriluzaren diru-laguntzak jaso ditu